



**Historiaurreko 65  
aztarnategi eta 4.000 pieza  
aurkitu ditu Iñaki Libanok  
eskualdean.** ▶22-23

**Konfiantzaren pedagogia** proiektuan  
murgilduko da Leioako Betiko Ikastola.  
Horren inguruan egin dugu berba  
Ainhoa Madariaga gerenteagaz. ▶15



# hiruka

Uribe Kostako astekaria



**30. zenbakia**

2015eko  
**irailaren 17tik**  
**irailaaren 23ra arte**

**Sopela Kosta Fest** jaialdiaren  
bigarren ekitaldia egingo dute  
irailaren 23tik 27ra. ▶11

## Bigarren olatua badator!

© SOPELA KO UDALA



## «Neure burua *underground* ikusten dut»

**Joseba Irazoki Agirre** musikari beratarra Sopelara  
etorriko da zapatuan, Idurre Azkuegaz batera *Dantza  
gurea* edo *Bailar por bailar* ikuskizuna eskaintzera.

Joseba Irazoki eskarmentu handiko  
konposiziozile eta gitarrista da. Bes-  
teak beste, Atom Rhumban, Joseba  
Irazoki eta Lagunak taldean, Dun-  
can Dhun, eta gizon-orkestra gisa jo

du. Horren guztiaren gainean zein  
bere diskografia zabalaz egin du  
berba beratarrak. Uda lasai eman  
duen arren, udagoienean oso lanpe-  
tuta ibiliko ei da. ▶16-17

HERRIZ HERRI BERANGO

## Berangoko nesken futbol- taldea kolokan

**Jokalari bila dabilta** Berangon,  
emakumezkoen futbol-taldea  
desagertu ez dadin. Horri buruzko  
iritzia eman dute Eider Gomez eta  
Oiane Zabala jokalariek.

Futbol-proiektua ez ezik, giro oneko la-  
gun-familia osatu dute Berangon, bost  
urtez. 16 urtetik gorako emakumezkoak  
parte hartzen animatu gura dituzte.  
Aurtengo egoerak, baina, kirol-arloan  
pairatzen duten parekidetasun ezaz  
hausnartzera eroan ditu emakume fut-  
bolariak. ▶20

**Getxoko Emakumeen  
Jabekuntza Eskolak**  
prest ditu aurtengo  
ikasturterako tailerrak  
zein ikastaroak. ▶2

**Irailaren 18tik 20ra,**  
festek Erandioko Lutzana  
auzoa bere egingo dute,  
gazte zein nagusien  
gozamenerako. ▶5

**Leioan errefuxiatuak  
hartzea** erabaki dute,  
aho batez, bertoko  
alderdi politikoetako  
bozeramaileek. ▶6

**Plentziako Esaera  
Zaharren** txapelketaren  
VI. edizioa egingo dute  
hilaren 26an. Izena eman  
daiteke daborduko. ▶9

## Getxo



## Jarduera batzuk

**Maitatzen ikasten**

Urriaren 15etik maiatzaren 26ra  
Eguenetan, 18:30-20:30; 20 euro.

**Genero arrazoiengatiko jazarpena**

Urriak 23 eta 24

Barikuetan, 16:30-20:30. 5 euro.  
Zapatuetan, 10:00-14:00. 5 euro.

**Autodefentsa feminista**

Azaroak 13 eta 14

Barikuetan, 16:30-20:30. 5 euro.  
Zapatuetan, 10:00-14:00 eta 15:30-19:30; 5 euro.

**Indarkeria ikustezina eta mikromatxismoak (euskaraz)**

Otsailak 16 eta 17

Martitzen eta eguaztenetan, 18:00-20:30.  
5 euro.

**Maitemina euskal literaturan (euskaraz)**

Apirilaren 4tik maiatzaren 9ra

Astelehenetan, 19:00-21:00. 5 euro.

**Emakumeak euskal komikigintzan (euskaraz)**

Urtarrilaren 13tik 27ra

Eguaztenetan, 18:30etik 20:30era. 5 euro.

info+: [www.getxo.eus/eu/igualdad](http://www.getxo.eus/eu/igualdad)

Eskola guztiak Emakumeentzako Jabekuntza Eskolan izango dira: Algortako Martikoena kaleko 16. zenbakia.

# Ikastaro ugari, andreen jabekuntzaren bidean

**Emakumeen Jabekuntza Eskolak** prest ditu aurtengo ikasturterako tailerrak eta ikastaroak. Hala, urritik aurrera, gai ugaritan sakondu eta hausnartzeko aukera izango dute interesa duten emakumeek. Izena emateko epea hilaren 25era arte izango dute.

**E**makumeen jabekuntza-kontzientziakoa, ikasketa-prozesua eta jendarte-eraldaketarako tresnak eskuratzeko bidea dira tailerrak. Horren harira, urtero legez, 2015-2016 ikasturterako Emakumeentzako Jabekuntza Eskolak hainbat tailer egingo ditu Algortan. «Banakako nahiz taldekako jabekuntza bilatzen dugu, ez baita nahikoa eremu subjektibo eta

pertsonalean aldaketak eragitea, talde-mailan ere aldaketa gertatzea beharrezkoa da, sareak sortuz eta partaidetza sozialaren bitartez», antolatzaileek azaldu dutenez. Eskola hiru ardatzetan garatuko da: prestakuntza, beste kultura batzuetako emakumeak elkartrukea eta elkartasuna, eta sistematizazioa, «hori guztia ikuspegi feminista batetik garatuz», azaldu dutenez.

Urritik hasita eta udara bitartean, Getxoko Martikoena kalean dagoen Emakumeen Jabekuntza Eskolak hainbat ikastaro eta tailer eskainiko ditu ikasturte honetarako, esaterako: jende aurrean hitz egitekoa; gorputzaren eta emozioen kartografiak; ahaldundutza; maitatzen ikastekoa; genero arrazoiengatiko jazarpena; indarkeria ikustezina eta mikromatxismoak; au-

todefentsa feminista; eta irakurketa kolektiboko tailerra: feminismo beltzak eta poskolonialak.

**Izen-ematea, hilaren 25era arte**

Jarduera guztiak Algortako Martikoena kaleko Emakumeentzako Jabekuntza Eskolan bertan izango dira. Ikastaro bakoitzak prezio eta ordu-tegi jakinak izango ditu. Ikastaroren batean parte hartu nahi izanez gero, irailaren 25era arte egongo da izena emateko aukera. Matrikula, berriaz, urriaren 1etik 8ra bitartean egin beharko da. ◀

**2015-2016 IKASTURTEA**  
MATRIKULA ZABALIK-MATRICULA ABIERTA

Maila guztiak - Todos los niveles  
Goizez eta arratsaldean - Mañana y tarde

Azterketa ofizialak prestatzeko  
ikastaroak larunbatetan

**MATRIKULA:**  
Irailaren 2tik 25era  
Del 2 al 25 de Septiembre

**BULEGO ORDUTEGIA:**  
10:00 - 13:00  
17:00 - 20:00

Algortako etorbidea, 104  
48991 - Algorta (Getxo)  
94 460 66 71  
[j.a.agirre@euskalnet.net](mailto:j.a.agirre@euskalnet.net)

**PARA ALUMNOS DE ENTRE 6-16 AÑOS/6-16 URTEKO IKASLEENTZAT**

**3 HORAS SEMANALES/ASTEAN 3 ORDU: Lunes y miércoles o martes y jueves / astelehen eta asteazken edo astearte eta ostegun (17:30 -19:00)**

**MATRIKULA: 260 €**

Refuerzo de la asignatura, aprendizaje lúdico, tiempo para preparar exámenes y hacer los deberes. Ikasgaia sendotzeko, ikasketa jostagarria, etxerako lanak egiteko eta azterketak prestatzeko

**Matriculas y más información:**  
J.A. Agirre Euskaltegia  
Algortako Etorbidea, 104 tlf: 94 460 66 71



# 15-16

## abonuko denboraldia

Hastapeneko Abonua

Piano labelduna\* abonua berriak

# BOS

## Bilbao Orkestra Sinfonikoa

# 4

### abonu mota

Abonu osea (17 kontzertu)  
Hastapeneko abonua (6 kontzertu)  
Abonua nahierara (6 kontzertu)  
Piano labelduna (4 kontzertu)

# 35€<sup>tik</sup>

## aurrera

Informa zaitez

abonados@bilbaorkestra.eus  
www.bilbaorkestra.eus  
Tel. 944 035 205

**k** Sarearen salmenta  
Bilbao Orkestra  
www.kutxabank.es

Enkarguak  
Bilbao Orkestra  
Caleidos  
multiservicio

**BFA DFB**  
Bilbao Futbol Federazioa  
Deportearen Federazioa

**B**  
Bilbao  
UDALA  
AYUNTAMIENTO

Adreia: Kalea 3402  
46100 Valencia

www.bilbaorkestra.eus



Argazkiak  
Eduardo J. J. J.

# 01

## urria 8-9

### Hastapeneko kontzertua

Joaquín Achúcarra  
piano  
Erik Nielsen  
zuzendaria

L. Stravinsky, Sinfonia sinfonikoa  
M. de Falla, Noches en los jardines de España  
P. I. Tchaikovsky, Sinfonia n.º 5

# 02

## azaroa 5-6

Paul Huang  
piano  
Carlos Miguel Prieto  
zuzendaria

A. Márquez, Sinfonia n.º 2  
S. Barber, Concerto para piano y orquesta  
S. Beethoven, La celda de los Mayas

# 03

## azaroa 12-13

### Asiatic Research Institute - orkestra berria

Shubhendra Rao  
sitar  
Jordi Bernàcer  
zuzendaria

R. Shankar  
Concerto n.º 1 para sitar y orquesta  
M. Mussorgsky / M. Ravel  
Cuadros de una exposición

# 04

## azaroa 19-20

### Jazz Gaia

365 JAZZ Bilbaorekin lehiatzen  
China Moses  
zuzendaria  
Erik Nielsen  
zuzendaria

Jazz Gaia  
BOS & China Moses

# 05

## abenduak 3-4

Evelyn Glennie  
perkusista  
Marcus Bosch  
zuzendaria

S. Barber, Adagio para cuerda  
J. Macmillan, Veni, Veni, Emmanuel  
A. Dvorak, Sinfonia n.º 6 en Re mayor

# 06

## abenduak 10-11

Judith Jaenigal  
piano  
Erik Nielsen  
zuzendaria

W. A. Mozart, Concerto para piano y orquesta  
en Do mayor n.º 24  
A. Bruckner, Sinfonia n.º 3 en Re menor

# 07

## abenduak 17-18

### Gabonetako kontzertua

Meen Ahijeta, soprano  
Bilbao Orkestra Sinfonikoa  
(J. L. García, zuz.)  
Bilbao Orkestra Sinfonikoa  
zuzendaria  
(J. L. García, zuz.)  
Erik Nielsen, zuzendaria

J. C. Pérez  
Sinfonia sinfonikoa  
(J. L. García, zuz.)  
P. I. Tchaikovsky  
Cocacuetas, suite

# 08

## urtarrila 21-22

### 800 Baroque

Gabriel Carragosa  
violonchelo  
A. Vivaldi  
Sinfonia sinfonikoa  
Concerto "Per la solennità di San Lorenzo"  
Concerto "Il grosso requiem"  
Le Quattro Stagioni

# 12

## martena 17-18

### Bilbao

Víctor Gillete Ballet  
Carmen Linares  
Bailarín-kontzertua  
David Pericelli  
zuzendaria

El Amor brujo  
Música  
M. de Falla, Luis Delgado  
a la Slaughter Natives  
Koreografía  
Víctor Gillete

# 13

## apirila 14-15

### Fundación Jesús Serra

Regina Chernichova  
piano  
Pablo González  
zuzendaria

J. Sibelius, Finlandia  
E. Grieg, Conc. para piano y org. en La menor  
C. Nielsen, Sinfonia n.º 4 "Inmenguable"

# 14

## apirila 28-29

Johannes Waser  
violonchelo  
Erik Nielsen  
zuzendaria

F. Ballo del Real  
Fragmentos del Sinfonia 1805-1806 (1806)  
F. J. Haydn  
Sinfonia n.º 104 "London"  
A. Dvorak  
Concerto para violonchelo y orquesta

# 15

## maiatza 5-6

Saverio de Maistre  
viola  
Arturo Tamayo  
zuzendaria

M. Ravel, Le Tombeau de Couperin  
A. Ginastera, Concerto para piano  
G. Mahler, Sinfonia n.º 10, Adagio

# 16

## maiatza 12-13

Marta Zabaleta  
piano  
Tara Traub  
zuzendaria

S. Rachmaninov, Concerto para piano  
y orquesta n.º 2  
D. Shostakovich, Sinfonia n.º 10

# 17

## maiatza 26-27

### Amalierako kontzertua

Tara Ariane Baumgartner  
mezzosoprano  
Erik Nielsen  
zuzendaria

C. M. Von Weber / W. Berlioz  
Invitación a la Danza  
Igor Stravinsky  
Le fou et le berger  
H. Berlioz  
Le chœur de Chœur  
I. Stravinsky  
La consagración de la primavera

# 11

## otsaila 18-19

Miguel Azpilicueta  
piano  
Nabil Sheikh  
zuzendaria

A. Rimski-Korsakov, Sinfonia sinfonikoa  
I. Stravinsky, Capriccio para Piano y orquesta  
W. A. Mozart, Piano en La Mayor para Piano  
F. Schubert, Sinfonia n.º 4 en Do menor "Trágica"

| Ezpenak | Abonak      |                    |                  | Sarrerak        |           |              | Gasteak abonua (17 kontzertu) |             |                    |                  | Gasteentzako abonua (17 kontzertu) |          |        |          |
|---------|-------------|--------------------|------------------|-----------------|-----------|--------------|-------------------------------|-------------|--------------------|------------------|------------------------------------|----------|--------|----------|
|         | Abonua Osea | Hastapeneko abonua | Abonua nahierara | Piano labelduna | Nahierara | Azken erdia* | Cre9805** (4 sarrerak)        | Abonua Osea | Hastapeneko abonua | Abonua nahierara | Piano labelduna                    | Sarrerak | Abonua | Sarrerak |
| A+      | 349,00      |                    |                  |                 | 30,00     | 15,00        |                               | 119,00      |                    |                  |                                    | 9,10     | 54,00  | 3,70     |
| A       | 329,50      | 126,00             | 130,00           | 95,50           | 27,70     | 13,85        | 133,00                        | 119,00      | 44,50              | 47,00            | 31,50                              | 9,10     | 54,00  | 3,70     |
| B       | 252,00      | 94,50              | 97,50            | 66,00           | 19,20     | 9,65         | 92,50                         | 83,50       | 32,50              | 33,50            | 23,00                              | 6,70     | 35,00  | 2,50     |
| C       | 178,50      | 71,00              | 73,00            | 50,00           | 14,40     | 7,20         | 78,00                         | 72,50       | 23,00              | 24,50            | 17,00                              | 4,90     | 35,00  | 2,50     |

Oharriak: Sarrerak gasteak gabe, gasteentzako abonua gabe, 17 gaste bakoitzaren osteko. Gasteentzako abonua gabe, gasteentzako abonua gabe, gasteentzako abonua gabe.

\* Sarrerak gasteentzako abonua gabe.

\*\* Ez da onartzen 17 gasteentzako abonua.

802. bilbo  
Bilbo Orkestra Sinfonikoa



## Getxo

# Autoen ordezkoen bila

**Europako Mugikortasun Astea** egingo dute Getxon, hilaren 16tik 22ra bitartean.

**E**uropako Mugikortasun Astea-gaz bat egingo dute hilaren 16tik 22ra bitartean Getxon. «Aukeratu. Aldatu. Konbinatu» goiburupean, gonbidapena egingo zaie herritarrei autoaren erabilera egoikiaren gaineko hausnarketa egiteko. Horretarako, Udalak hainbat jarduera antolatu ditu, eta hilaren 20an, domekan, Autorik Gabeko Eguna antolatu-ko dute Areetan.

Era berean, udalerriko garraiobide desberdinen inguruko informazio guztia sakelako telefonoaren bidez eskuratzeko aplikazioa aurkeztuko dute, Moovit izenekoa. Horren bitartez, metroko lineei, Bizkaibus eta Bilbobuse-



Irailaren 20an Autorik Gabeko Eguna egingo dute Areetan. GETXOKO UDALA

ko autobusei, Bizkaia zubiko transbordadoreari, itsasadarra zeharkatzen duen ontziari eta Ereagako igogailuari buruzko informazioa kontsulta daiteke. Halaber, plano batean erakutsiko ditu garraiobide denen geltoki eta geroalekuak, ordutegiakaz batera.

Astearen egitarauak hainbat jarduera ditu: bizikletaz ibiltzeko ikastaroa, garraiobideen eraginkortasunaren gaineko analisi konparatiboa, ibilaldiak bizikletaz, eta ibilaldi nordikoak, besteak beste. ◀

info+: [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

## Getxoko hondakin solidoen bilketako kontratua onetsi dute

**E**Aeko Justiziako Auzitegi Nagusiak Getxoko Udaleko garbiketako eta hiri-hondakin solidoak batzeko kontratuaren erabateko indarra eta aplikagarritasuna ebatzi ditu, epai baten bidez. Hala, Udalak ipinitako errekurtsioa baietsi eta kontratuaren deuseztapena adierazi zituen, eta Kontratuaren inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren ebazpena indargabetu. Imanol Landa alkateak poza agertu du ebazpen judizial horregaz, «epaiak ziurtasuna, lasaitasuna eta segurtasun juridikoa ekarri dizkigu, behin betiko, kontratu horren aukera guztiak osorik garatzeko». Halaber, akordura ekarri duenez, «adjudikazio-prozedura horren hasierak, garapenak eta amaierak lan tekniko itzela eskatu zuten, udal teknikariek bete zutena. Gobernu-taldearen eta oposizioko taldeen arteko akordioak bilatzeko ere lan eskerga egin genuen». ◀

## ANTZERKI JARDUNALDIAK

JORNADAS DE TEATRO

# GETXO

URRIA - OCTUBRE 2015

10-11-12-17-18

Antzerkiak / Organizazioak

**Getxo**  
baita ere

**Getxo**  
KULTUR ETXEA  
baita ere

Sabeslek / Patrocinadores

**BFA DFB**  
Bilbao Futbol Federazioa

**EUROPA SARRAKETZARTEK**  
GOBIERNO VASCO

bbk

### ALGORTAKO SAN NIKOLAS PLAZA - PLAZA SAN NICOLÁS DE ALGORTA

- |                        |                                                                |
|------------------------|----------------------------------------------------------------|
| 10 larunbata<br>abuztu | 13.00 - ASTOKILLO CIRCUS - Panta Rhei Antzerkia (Leizorak)     |
| 11 igandea<br>domingo  | 13.00 - KOLORE - Gari, Montxo eta Joselantxo (Leizorak)        |
| 12 astelehen<br>luzen  | 13.00 - GELAJAUZIAK - Kukai Dantza (Montxo Galarza eta Montxo) |
| 17 larunbata<br>abuztu | 13.00 - EL SUCESO - Jon Zabala (Leizorak)                      |
| 18 igandea<br>domingo  | 13.00 - MORSE - Zirkozaurre (Montxo Galarza eta Montxo)        |

### AREETAKO ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA ESCUELA DE MÚSICA ANDRÉS ISASI DE LAS ARENAS

- |                        |                                                        |
|------------------------|--------------------------------------------------------|
| 10 larunbata<br>abuztu | 20.00 - BARRO ROJO - Javier Linera (Leizorak)          |
| 11 igandea<br>domingo  | 20.00 - TIPOS DE TIPAS - Lafuta Teatro (Leizorak)      |
| 12 astelehen<br>luzen  | 20.00 - PULGARCITO - Teatro Paraiso (Leizorak)         |
| 17 larunbata<br>abuztu | 20.00 - KREDITUA - Tanttaka Teatroat (Leizorak)        |
| 18 igandea<br>domingo  | 20.00 - PINOTXO TXIKIA - Ópera Divertimento (Leizorak) |

Herriz gain, igandeetan // igandea, urria eta domingo  
Algortako Kultur Etxean - Villamonte, 48



[www.teatrobrevegetxo.es](http://www.teatrobrevegetxo.es) / [www.antzerkiarinetxo.es](http://www.antzerkiarinetxo.es)



[www.getxo.eus/antirumores](http://www.getxo.eus/antirumores)

944 914 080  
[kulturetxea@getxo.eus](mailto:kulturetxea@getxo.eus)  
[www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)





## Erandio

## Festek Lutxana auzoa bere egingo dute hilaren 18tik 20ra

Irailen bete-betean murgildu bagara ere, oraindino ez dira ospakizunetarako uneak amaitu. Enekuriko festak amaitu eta hurrengo aste-akabuan Lutxanako jaiak hasiko dira: hilaren 18tik 20ra iraungo dute. Barikuan, hilak 18, auzokide denei baserritarrez janzteko proposamena egin die, eta gero txupina jaurtiko dute, 19:30ean. Ondoren, zinta-lasterketa egingo dute bizikletagaz. Bitartean, gura duenak musean jokatu ahal izango du, 22:00etan dantzari hasi baino lehen. Hurrengo egunean, zapatuan, herri-bazkaria egingo dute 15:00etan. Horren ostean, etxera joan eta gus-tukoen dituzten moztarok jantziko dituzte 18:00etako Xaiborren diskofestaz gozatu ahal izateko; 20:00etan moztaroen sariak banatuko dituzte. Azkenik, domekan, putxera lehiaketa egingo dute; gero, 17:00etan sokatira-proba, adin guztien artean. ◀

## Sonora diskoteka «botellodromo» barik, momentuz

Udalak dekretuz ezeztatu du Sonora diskotekako kanpoaldean «botellodromo» bat egiteko lizentzia. Diskotekako arduradunek iragarri dute erabaki horren aurka «helegitea» aurkeztuko dutela. Udalak uste duenez, iniziatiba hori «edozein segurtasun-arauren kontra doa». Udalaren arabera, «zorakeria» da edozein larrialdiren aurrean irteera horiek ixtea. Izan ere, «botellodromo» eraikinen kanpoaldeko 800 metro koadroko eremuan ezarri gura zuten, hesi batez inguratuta. Hain zuzen, «baimenik gabe» ipinitako hesi hori kentzeko eskatuko du Udalak; hala ere, diskotekako arduradunek jakinarazi dute ez dutela kenduko. ◀



Eusko Jaurlaritzak Indartu programa ipini du martxan Ezkerraldean eta Oiarzualdean. LEIOAKO UDALA

## Industrian enplegua sortuz

Eusko Jaurlaritzak Indartu programa ipini du martxan, industrian lanpostuak sortzeko inbertsio produktiboak erakartzeko asmoz. Horretarako, Indartuk 8 milioi euro bideratuko ditu, Europako Batzordeak «alde behartsu» izendatu dituen EAEko eskualde bitarra: batetik, Gipuzkoako Oiarzualdera (Errenteria, Pasaia, Lezo, Oiarzun, Hondarribia, Irun eta Hernani), eta, bestetik, Ezkerraldera (Barakaldo, Sestao, Portugalete, Santurtzi, Trapagaran, Ortuella, Abanto, Zierbe-

na, Muskiz, Alonsotegi eta Erandio). Indartuk diru-laguntza hori jarriko du industria-mailako enpresek lanpostuak sortzeko inbertsio produktibo berriak egitea eragiteko. Programaren horretan jasotako diru-laguntzak honako enpresa hauek eskuratu ahal izango dituzte: enpresa handiak, eta enpresa txiki eta ertainak (ETE), baldin eta erauzketa, eraldaketa edo produkzio industrialeko enpresak badira, edo zerbitzu teknikoak egiten badituzte era horretako enpresentzat (produktu-prozesuari lotuak). ◀

## Enekuriko zabortegeia ixteko erabakia hartu du Udalak

Udalak Enekuriko zabortegeia ixteko erabakia hartu du. Instalazio horren lizentziak 2011ko abenduaren 13an iraungi zuen, 15 urtez indarrean egon ostean. Hala, Volba enpresari zabortegeia lanean jarraitzeko emandako lizentzia bertan behera uzteko prozedurari ekin dio Udalak. Birziklaketako plantari ere eragingo dio, plan-

ta hori erabiltzea behin-behinekotzat jo zutelako zabortegeiagaz lotu ostean. Bigarren lizentzia hori ere 2011ko abenduaren 13ra arte eman zuten, zabortegeiarena legez. Baldintza horiek Eusko Jaurlaritzak ezarri zituen 2006an, eta enpresak erabaki hori errekurritu arren, EAEko Justizia Auzitegi Gorenak erabakia berretsi zuen. ◀



Itsasertzetik

GUILLERMO  
MALAINA MARTINEZ  
Irakaslea

## Erandioko dutxa xume baten balio handia

Ezin uka, Erandioko gazteak Ibaizabal itsasadarrean bainatzen ikuste hutsak zirrararagin dituzte. Plisti-plasta eginez, ubide honi bizitasun apur bat itzuli diote. Eta bizitasun hitzak dakartzkit burura Jesus Suárez Albizua, Chuli, marinel erretiratuaren hitzak UK aldizkarian, 2002ko otsailaren zenbakian: «Itsasadar-rrak meategi itxi bat dirudi. Politagoa bada, baina zerbait falta zaio». Halakoxea zen. Itsasontzi trafikoko gehiena Abrako Portura eramana baitzen, eta ubidea-ri zegokionez, instituzioek 80ko hamarkadan martxan jarriko Bilbo Metropolitarraren Osoko Saneamendu Plana amaitzea zuten helburu.

Beronetan 1.000 milioi eurotik gorako inbertsioa eginda, Ibaizabal bizia da berriro, eta orain eragelkeria izango litzateke kirol eta itsasketa arloko erabilera berriak ez sustatzea. Erandioko Udalak badaramatza urte batzuk piraguen zerbitzu bati babes ematen udako asteburuetan, eta aurton dutxa bat ere jarri du Altzagako arrapalan. Txalotzekoa da. Halako apustuak indartu behar dira biertzetan, eta munduan gura beste eredu aurki ditzakegu gure itsasadarraz gehiago gozatzeko.

Itsasadarren aldeko auzardia behar dugu instituzioetan. Ez koldarkeria! Nahiko izan genuen duela hamar urte Julio Artetxe Enplegu eta Prestakuntzako Foru diputatu ohiarekin (EA). Sabin Arana ordezkatu eta Abrarako proiektatuta zegoen urpean igeri egiteko parkea deuseztatu zuen. Ibaizabalen txatar-rrerako zeuden Itsasontzi batzuk hondoratu beharrean proiektua hondatu gurago izan zuen. Politikakeriagatik! Harrezkero ez da tamaina hartako proiektu gehiagorik egon. Horregatik, bere xumetasunean, Erandioko dutxaren balio handia goraipatzera natorkizu, irakurle. ◀

**aek**  
euskara praktikoa

eman izena euskaltegian  
**URIBE KOSTAKO AEK**  
ZATOZ GUREKIN!

Leioa: 944 646 063 [lamia@aek.eus](mailto:lamia@aek.eus)  
Getxo: 944 304 734 [lauxetia@aek.eus](mailto:lauxetia@aek.eus)  
Plentzia: 946 773 637 [jentilbaso@aek.eus](mailto:jentilbaso@aek.eus)  
Gorliz: 946 773 646 [jentilbaso@aek.eus](mailto:jentilbaso@aek.eus)

[www.aek.eus/blogak/unibekosta](http://www.aek.eus/blogak/unibekosta)  
[www.facebook.com/unibekostako.aek](https://www.facebook.com/unibekostako.aek)

30 urtean,  
50.000 lagunek  
ikasi dute  
euskara  
gure 100  
euskaltegien

**Eman izena**

673 200 100 - 946 464 000  
[www.aek.eus](http://www.aek.eus)

**Taberna Berri**

Sarrikobaso 4 - ALGORTA  
Tf. 94 430 64 93

**txakoli**  
**mota**  
**ganeTx**  
txakolina

leioa urte enplegua 34 (Alaranda Parke) Gorka Erandio  
Tf. 94 467 00 07 [www.txakolimotagane.com](http://www.txakolimotagane.com)



## Leioa

## Miarritzen omenduko dute Andoni Hernandez iheslaria

Andoni Hernandez Ibarluzea eus-  
kal iheslari politikoa hilaren 12an  
zendu zen Baionako ospitalean, min-  
biziaren ondorioz. Hala, «senideei  
gure berotasun eta indar arnasa he-  
laraz diezaiegun», agur-ekitaldietan  
parte hartzeko deia egin du Leioako  
Ezker Abertzaleak. Hain zuzen ere,  
eguen honetan, irailak 17, omenaldia  
egingo diote Hernandezi, Miarritzeko  
erraustegian, 16:30ean.

Pili Artze Abascal bere bikotekidea-  
gaz batera, Andoni Hernandez Ibarlu-  
zea 1987an errefuxiatu zen Estatu fran-

tsesean, ETaren Bizkaia Komandoko  
kideei aterpea eman izana leporatzen  
zietela jakin ostean. Handik Uruguai-  
ra joan ziren, eta bertan «ustezko po-  
lizia espainolek bahitu eta torturatu»  
zituzten, Leioako Ezker Abertzaleak  
dioenez. Atxilotetak eta konfinamen-  
dua sufritu ostean, Arbonan (Lapurdi)  
finkatu ziren.

Azken urteetan bertan bizi izan da  
Hernandez. 2014an iheslarien kolekti-  
boak hartutako erabakiagaz bat egi-  
nez, Leioara itzuli zen, nahiz eta Arbo-  
nan bizitzen jarraitu behar izan. ◀

## Aterpe Gaztegunean, hainbat ikastaro

Aterpe Leioa Gazteguneko datorren  
ikasturteko ikastaroetan izena emate-  
ko epea zabalik dago. Irailaren 18ra  
arte edukiko dute horretarako aukera  
14 eta 35 urte arteko leioztarrek. Bes-  
teak beste, urriaren 3an, zapatua, ja-  
nari-erabiltzaile izateko eskola eman-  
go dute, euskaraz. Bestalde, eguenero  
egongo da zabalik Leihosex sexolo-  
gia-orientaziorako zerbitzua. ◀

info+: gazte@leioa.net

## Oinezkoen Pausora ibilaldia badator!

Herrigune ekimenak antolatuta, zapa-  
tuan, irailak 19, izango da Oinezkoen  
Pausora ibilaldiaren 11. ekitaldia. Ir-  
teera 11:00etan egingo dute Sakone-  
ta kiroldegian. Antolatzaileek azaldu  
dutenez, aurtun beltz koloreko zebrak  
margotu dituzte lurrean ibilbidea mar-  
katzeko. «Udalerriko kaleek oinezkoei  
segurtasunez eta lehentasunez ibiltze-  
ko aukera ematen ote dieten behatuko  
dugu», azaldu dutenez. ◀

## Errefuxiatuak hartzeko baliabideak jarriko dira

**Ekialde Hurbileko gatazkatik** ihesi Europara datozen  
lagunak Leioan hartzearen alde agertu dira, aho batez,  
Udalan ordezkariak daukaten alderdiak.

Leioako EH Bildu udal taldearen  
ekimenez, Bozeramaileen  
Batzordeak aho batez onartu  
zuen irailaren 9an, Ekialde Hurbile-  
ko gatazkatik ihesi Europara datozen  
milaka errefuxiatu jasaten dabilzan  
egoera arintzen laguntzeko neurriak  
hartzea. Udalak parte hartuko du erre-  
fuxiatuei harrera egingo dien tokiko  
sarean. Hala, udalak aurrekontu-e-  
rreserba egingo du, «baliabide eko-  
nomiko nahikoa» bideratuz, Leioa-  
ra etorriko diren aterpetuak hartzeko  
prozesuan. Gainera, harrera egiteko  
beharrezkoak diren baliabideak jar-  
tzeko konpromisoa hartu dute agintari  
leioaztarrek.

Udal alderdi politikoetako bozera-  
maileek adostutako idatzian azaltzen  
denez, Eusko Jaurlaritzak zeharkako  
lantalde bat sortu du krisi humanita-  
rio horren inguruko jarduketa koor-  
dinatzeko. Aipatutako lantaldea ha-  
rremanetan ipini da Araba, Bizkai eta

Gipuzkoako foru aldundiakaz, Euskal  
Autonomi Erkidegoko (EAE) hiru hiri-  
buruakaz eta Eudelegaz, balizko ekin-  
tza-plan bat koordinatzeko asmoz.  
«Horretarako, Leioako Udala aipatu-  
tako lantaldearen esanetara jartzen  
da hark har litzakeen erabakietan, eta  
hau, gure jarrera, agertu gura dugu,  
eta Eusko Jaurlaritzari eta Eudeli jaki-  
narazten diegu, 2015eko irailaren 9an  
egindako bozeramaileen bileraren os-  
tean», irakur daiteke Udalak plazara-  
tutako agirian.

Hain zuzen ere, irailaren 9an egin  
zuen lehenengo bilera lantalde ho-  
rrek. Ordezkatutako erakunde denak  
bat etorri ziren esatean EAE 1.000 per-  
tsona hartzeko egoeran dagoela, biz-  
tanle-kopurua eta errenta kontuan  
hartuta. Horrek esan gura du Bizkaiak  
520 pertsona hartuko lituzkeela. Bai-  
na, Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako  
bozeramaileak azaldu zuenez, behin-  
behineko kalkulu bat baino ez da. ◀

## Berba-taldeetarako partaide berrien bila dabilta

Berbaldun egitasmoak hilaren  
21ean abiatuko du berba-taldeeta-  
rako parte-hartzaile berriak bilatzeko  
kanpaina. Ekimenak Leioan euskara-  
ren erabilera suspertzea du helburu:  
«euskara kalera atera gura dugu, jen-  
deari euskaraz berba egiteko aukera  
eman, euskaraz berba egiteko ohitura  
sortu», azaldu dute arduradunek. Eu-  
ren ustez, «euskaldunak garenok ze-

regin garrantzitsua daukagu ikasten  
dabilzanek laguntzeko, ikastetxean  
edo euskaltegian ikasi dutena kalean  
naturaltasunez erabiltzeko lotsa eta  
beldurra gaindi dezaten». 2015-2016  
ikasturtean egitasmoa sendotu gura  
dute, batez ere gazteen eta euskaldu-  
nen parte-hartze handiagoa lortuz eta  
talde-kopurua handituz. ◀

info+: berbaldun.leioa@gmail.com / 688 850 129

**Modulo berriak**  
10 urte/10000  
8 urte/8000  
7,30 urte/7000  
5 urte/5000  
3,30 urte/3000  
25 urte/2500

**PAUSOZ PAUSO EUSKALDUN MASTITXU EUSKALTEGIA**

**Aurrematricula**  
irailaren 1etik 18ra  
Matriculazio prezioak behar!!

**Prematricula**  
del 1 al 18 de setiembre  
el precio de matriculacion bajará!!

**Euskara ikasteko Diru-laguntza jasotzeko aukera**

**Posibilidad de pedir BECAS para el aprendizaje del euskera**

**MASTITXU EUSKALTEGIA**  
Iparreagorri 107 bidea, 76  
48940 - LEIOA  
euskaltegi@leioa.net  
www.euskaltegi-leioa.com  
T 94 464 00 02  
Fax 94 464 25 80

**Leioa**

*Kalitatezko irakaskuntza euskaraz*

**BETIKO IKASTOLA**

0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.  
Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.  
Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.  
Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.  
Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez! Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)  
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net





# Leioa eta Artea hipermerkatu berriak

## Gurekin ospatu!

huerlas de nuestros  
caseros

baseak  
de temporada

EROSKI club

bazkideentzat soilik

% **50** -eko  
**DESKONTUA**

Zure txartelean itzuliko dizugu

**osteguna 17 iraila**

**FRUTATEGIA \***

5€-tik gorako erosketak egiteagatik frutategian

**ostirala 18 iraila**

**URDAITEGIA \***

8€-tik gorako erosketak egiteagatik urdaitegian

**larunbata 19 iraila**

**HARATEGIA \***

15€-tik gorako erosketak egiteagatik harategian

\*Kutxatik pasatzen zarenean, zure EROSKI club txartelean sartuko dizugu, berehala, frutategian, urdaitegian eta harategian erositako produktuei dagokien zenbatekoaren %50. Hurrengo erosketetan trukatu ahal izango duzu zenbateko hori. Kontsultatu gainerako baldintzak saltokian.



## Urduliz



Javier Bilbao Urdulizko alkatea, bigarrena ezkerretik, obrak bisitatzen. © BFA

# Geltoki berria zabaltzeko zain

**Lanak aurrera doaz,** trenbide-pasagunea kendu eta geltokia zein trenbidea lurperatzeko helburuakaz.

**A**rduradunen ustez, «ustekabekorik sortzen ez bada, ezarritako epean amaituko dira lanak, 2016. urtearen amaierarako». Horrela adierazi zuen Vicente Reyes Garraioen foru diputatuak, oraintsu obretara egindako bisitan. Beragaz batera izan ziren Javier Bilbao Urdulizko alkatea, eta Eusko Jaurlaritzako Garraio Saileko eta Euskal Trenbide Sareko (ETS) ordezkariak. Lanak egiteko erabiltzen duten fresatzeko makina hidraulikoa izan zuten ikusgai, besteak beste, bertan. Etxebizitzetatik hurbilen dauden hormak eraikitze erabiliko dute, «auzokideei ahalik eta eragozpen gutxien sortzearen», foru iturriek diotenez.

Gobela ibaiko lan hidraulikoetan ere horrelako tresnak erabili zituzten.

Urdulizko obra ETSk daroa, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren menpe. BPG Bizkaiko Garraio Partzuergoagaz batera egiten dabilta obra aipatutako obra, eta Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak erdibana finantzatzen dute lurperatzearen kostua (21 milioi euro), BGPren bitartez.

Lanak, 700 metroan egiten dabilta, eta luzera horretatik, 543 metro geratuko dira estalita. Trazatu berriak aurrekoaren ibilbidea aprobetxatuko du, eta %2,7ko malda izango du, gehienez ere. Lurperatutako zatia erdialdean egongo da Urdulizko geltoki berria, oraingotik 50 bat metrora. Instalazio berriek 90 metroko luzerako nasa bat izango dute, eta geltokiko atartera sartzeko fosterito laukia egingo dute, Areetako geltokian dagoenaren parekoa. ◀

## Sopela

## Dantza Gurea, lehen aldiz, zapatuan

**Idurre Azkueren eta**

Joseba Irazokiren ikuskizun berriaren aurrestreinaldia hartuko du Kurtziok.

**K**urtzio kultur etxean sortu, eta lehenengoz erakutsiko dute *Dantza Gurea* ikuskizuna, zapatu honetan. Idurre Azkue dantzariak sortu eta zuzendu du, eta berak dantzatuko du, Joseba Irazoki musikaria alboan daukala. Hain zuzen ere, horixe bera du ardatz: dantza egitea. «Gorputza musikaren eta soinuaren esanetara dago, eta musika eta soinua, gorputzaren esanetara». Zapatuan izango da aurrestreinaldia, 20:00etan. Sarrerak kultur etxean lor daitezke, 3 euroan.

Azterketa sakona eginez, notek, soinuaren bibrazioak gorputzari zelan eragiten dioten, haren kontra talka eta oihartzun zelan egiten duten landu dute. Eta, aldi berean, mugimenduak

berak espazioan zelan dar-dar egiten duen, eta harengan zer arrasto uzten dituen ere aztertu dute. Horregatik, esan daiteke pieza hori kontzertu bat dela. Irazokiren kontzertu bat, baina gorputz dantzariategaz. Horrenbestez, «soinua gorputzean islatzen den aldi berean, gorputza bera soinu-tresna bihurtzen da, soinua eta erritmoa sortuz, lurraren kontra kolpatuz, adibidez, edo bi gorputz-atalen talkarekin», azaldu du Azkuek.

Hainbat musika-tresna erabiliko dute, eta, piezak aurrera egin ahala, artista biek elkar eraginez jardungo dute, tresna horiei soinua ateratzeko. Era berean, hantxe eta orduantxe, oso presente egon gura dute. Horregatik, leku handia utziko diete inprobisaziorik eta zuzenekoaren magiari. Azkuek ihes egin gura du dantza garaikidearen estereotipo eta ohiko formatetik, eta ahalik eta modu pertsonalenean mugitu, formak eta edukiak etengabe-ko elkarriketan jardun dezaten. ◀

## Aire Inauteria egingo da zapatu honetan, Barinatxen

**P**entsa liteke sasoz kanpo gabilta- la inauteriak ospatzeko, baina beti izan daiteke une polita moztortzeko; areago, hegan egiteko bada. Bai, bai! Hegan! Urtero legez, Aire Inauteria antolatu dute zapatu honetarako, 14:00etatik aurrera. Sopelan egiten diren jardueren artean ikusgarrienetakoa da: moztorra soinean, Barinatxe gainetik botako da lagun ugari parapentean, herriko zerua kolorez betetzeko. Merez du hurbiltzea, eta ikuskitzaz gozatzea. ◀

info+: [www.parapente.net/blogs/airetik](http://www.parapente.net/blogs/airetik)



© MIKEL M.



**Hautzaindegitik batxilergora arteko eskaintza**  
Gatzarriñe bidea 47, Sopela  
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28  
[info@anderdeuna.eus](mailto:info@anderdeuna.eus)  
[www.anderdeunaikastola.eus](http://www.anderdeunaikastola.eus)



GOSARIAK, PINTXOAK, KORAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA  
SOPELA, Ripa kalea 1 (Udaleko aldean)



**Gosariak,  
Pintxoak,  
Giro eta musika onena  
ONGI ETORRI!!**

Bentabx 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA



**TXIBERRI**  
edantokia  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
Tf. 94 676 07 15



## Plentzia

# Esaera zaharrak jokoan ipiniko dituzte hilaren 26an

**Esaera Zaharren Txapelketaren** VI. edizioa izango da aurtengoa, eta Oihana Perea eta Unai Iturriaga bertsolariak egongo dira bertan; hilaren 21era arte eman daiteke izena.



Guztira, 60 esaera zahar ezagutu beharko dituzte parte-hartzaileek.

**S**ei liburu baino, maisu on bat hobe»; kalitatea garrantzitsua goa izan ohi da kopurua baino. Baieztapen horregaz egingo dute irailaren 26an, zapatua, Esaera Zaharren Txapelketa Plentzian; aurtengoa seigarren ekitaldia izango da. Atsotitzen jaialdi horretan parte hartzen duten taldeek 60 esaera zahar ezagutu eta buruz ikasi behar izango dituzte, gonbidatutako bertsolarien kantei zein esaerari erreferentzia egiten dioten jakin ahal izateko.

Egun osoko egitaraua goizeko 11:00etan hasiko da. Ordu horretan, parte-hartzaile, musikari eta interesatu denak Eleiz plazan elkartuko dira. Horren ostean, poteoa hasiko dute herriko barrena, lau ibilbidetan banatuta. Ibilbide horietako bakoitzean, bost talde inguru egongo dira, eta tabernaz taberna doazen heinean, txapelketaren lehenengo zatia jokatuko dute. Hori horrela, alde aurretik prestatutako bertsoak kantatuko dituzte Oihana Perea eta Unai Iturriaga aurtengo gonbidatutako bertsolariak. Hala, parte hartzen duten taldeek, txandaka, berbaz berba eta hizkiz hizki asmatu beharko dute bertsoan kontatzen den egoeragaz lotutako esaera zaharra zein den, lehiaketako zerrendan dauden hiru rogeiren artean. Esaera zahar gehien asmatzen dituzten taldeek finala jokatuko dute. Goizeko zati hori amaitzen

dutenean, Danontzat gaztetxera hurbilduko dira tripak bete eta txapelketaren bigarren zatia ekiten: finala jokatuko. Han, bertsolariak bat-bateko bertsoak kantatuko dituzte, eta aurreko zatian bezala, esaera zaharra zein den igarri beharko dute taldeek. Finalean puntu gehien lortzen dituen taldeak txapelketa irabaziko du.

Txapelketan izena eman daiteke daborduko, eta horretarako epea irailaren 21era arte egongo da zabalik. ◀

info+: esaerazaharrakplentzian@gmail.com

## Adibide batzuk

### «Abere gextoa da gorrotoa»

Gorrotoa ez da gauza ona, eta arazoak dakartza.

### «Bakoitzak bere gurutzea darama»

Guztiok ditugu arazoak, nahiz eta kanpotik ez igarri.

### «Berant jinak, mahain azpitik xistu»

Leku batera berandu ailegatzeak gauzak galtzea eragiten digu askotan.

### «Eskuko behatzak ere ez zituen jainkoak berdinak egin»

Denok gara ezberdinak.

### «Ez beha errainari, beha bihotzari»

Ez epaitu inor itxuragatik, itxura baino ez delako askotan.

### «Loreak arantzia, ta gozuak be mingotsa»

Gauza guztiek daukate euren alde txarra, ederrak eta onak badira ere.

### «Mando hilari ostiko»

Ahul ikusten dugunaren kontra denok ausartzen gara.

## Barrika



## Landare-hondakinak batzeko zerbitzua

**U**dalak landare-hondakinak gaikatzeko zerbitzua ipini du martxan berriro ere. Izan ere, oso handia da landa-guneetan eta zuhaitzen mantentze sortzen diren adar- eta landare-kopurua, inausketa-sasoiaren batez ere. Hala, zerbitzu horrek saihestuko du herriko hondakinen edukiontzietan hori guztia batzea, eta, horrenbestez, Zabalgarbiko erraustegira eramatea. Izan ere, landare-hondakinak Bizkaiko konpostegira eroango dituztela jakinarazi dute, konposta egin dezaten. Orain arte ezarrita dauden 12 puntuetan metatu beharko dira hondakin horiek. ◀

## Berango

## Adin guztientzako ikastaroak antolatu dituzte 2015-2016rako

**U**dalak ikasturte berrirako hamaika ikastaro antolatu ditu. Adinaren arabera egongo dira banatuta: umeak, 18 urtetik aurrerakoak, eta nagusiak. Umeek dantza modernoa edo margolaritza ingelesez izango dute aukeran; 18 urtetik aurrerakoek, oster, hainbat aukera izango dituzte, barbarako: altxariak zaharberritzea, zura lantzea, tai xi, eskulanak, margolaritza, saloi-dantza, euskal dantzak eta euskara. Nagusiek, ordea, gimnasia, saloi-dantza, abesbatza, tai xi, erlaxazioa eta musikoterapia egin ahal izango dute.

Ikastaro denetan alde aurretik izena eman beharra dago, hilaren 23a baino lehenago. Horretarako, Berangoeta kultur etxera hurbildu beharko dute interesa dutenak; nagusiek ezik, horiek izen-ematea Nagusien Etxeko bulegoan egin beharko dute. Tailerrek prezio bana izango dute, eta Berangon erroldatuta egonez gero, beherapenak izango dituzte. ◀

info+: [www.berango.net](http://www.berango.net)

## Udalak herriko 6 langabe kontratatuko ditu 3 hilabetez



Lanpostuetako bat lortu ahal izateko, Lanbiden izena emanda egon beharko da. BEHARGINTZA

**B**erangoko Udalak lau peoi espezializatu eta administrazio langile 2 kontratatuko ditu, Uribe Kostako Behargintzagaz elkarlanean martxan ipinitako Enplegua Sustatzeko Udal Ekintzak programari esker. Kontratazioak hiru hilabetekoak izango dira, eta epe horretan, udalerrira hobetzeko lanak egingo dituzte. Administra-

zio langilei dagokienez, unibertsitate-prestakuntza izan beharko dute: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan, Ekonomia Zientzietan edo Zuzenbidean (ekonomia espezialitatea). Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden herriko lanbakei dago zuzenduta ekimena. ◀

info+: [www.berango.net](http://www.berango.net)



Uribe Kosta

# Landa, Eudeleko burua



Eskualdetik, Landa (Getxo) eta Urbiet (Leioa) alkateak egongo dira Eudelen. © EUDEL

**I**manol Landa Getxoko alkate jeltzalea izango da Eudel EAeko Udalerrien Elkarteko presidentea. Horrez gainera, elkarte horren zuzendaritzan egongo dira PSE eta PP, eta udalek aurkezten duten hautagai independentea ere bai. Jakinarazi dutenez, Eudelen zuzendaritzan EAjko 10 kide, PSEko 3, PPko 1, eta talde independenteen beste bat egongo direla zehazten du lortutako akordioak. Hala, Jose Antonio Santano Irungo alkatea (PSE-EE) eta Josune Irabien Amurrioko alkatea (EA) izango dira presidenteordeak. Besteak beste, Mari Carmen Urbiet Leioako alkatea (EA) Zuzendaritzako kide izango da.

Eudelek hilaren 16an egin zuen ezohiko batzarra, Durangoko Landako Gunean (Bizkaia). Batzorde Eragileko kide berriak aukeratu dituzte han, besteak beste. ◀

info+: [www.eudel.eus](http://www.eudel.eus)

Txakoli Motagane da finalistetako bat.

## «Txakoli 2015» saria lor dezakete eskualdeko 2 jatetxek

**E**randioko Txakoli Motagane eta Gorlizko Hondartzape jatetxeak izendatu dituzte Laboral Kutxak ematen dituen Bizkaiko Txakolinaren Trautuan Profesionaltasunari Sariaren finalistetako batzuk, barra eta jatetxe kategorietan, hurrenez hurren. Guztira, erabiltzaileek bost jatetxe eta hamar taberna aukeratu dituzte sarirako: txakolina zerbitzatzerako unean, establezimendu horiek eskaintzen duten profesionaltasunagatik. Bizkaiko ostalaritza-establezimenduek eskaintzen duten profesionaltasuna aitortu gura dute sariok. Horretarako, bezeroen iritzia jaso dituzte. Saria nork irabaziko duen jakiteko, hainbat ezaugarri hartuko dituzte kontuan epaileek: erabilitako kristaleria, eskaintza-kopurua eta ardoaren tenperatura. ◀

Lemoiz


## Portua berritzeko ideiak helarazi dizkio alkateak Oregiri

**U**nai Andraa alkateak Armintzako portu-ingurua hobetzeko hainbat ideia eta proiektu helarazi dizkio Ana Oregi Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari, berbarako: portuko amarralekuak areagotu, kofradia eraberritu eta barandak ipini. Portuan, 107 kirol-amarraleku daude, eta 5 arrantza-ontzi porturatzen dira.

### Plentziako itsasadarra aztertuz

Armintzara bertaratu baino lehenago, Oregi sailburua eta Almudena Ruiz de Angulo Eusko Jaurlaritzako Azpiegitura zuzendaria Plentzian egon ziren, David Crestelo Plentziako alkateagaz eta hango zinegotziakaz, Plentziako itsasadarra aztertzeko. Erabaki dutenez, itsasadarraren sakonera handitzeko lanak abiatuko dituzte; horretarako, azkenengo 185 metroan ibaiaren bideratzea handituko dute. ◀

## Lemoizko Andraa ibaiko presa txiki bat eraitsi dute



Lemoizko presaren eskumako ertza hondatuta zegoen, ertzaren ezponda ezegonkortuz. © URA

**U**RAk Bizkaiko hiru presa txiki eraitsi ditu; horien artean, Lemoizko Andraa ibaiko bat; beste biak Arratzukoa eta Mendatakoa izan dira, Goiolako ibaian. Guztira 8.300 euro inbertitu dituzte, eta helburua izan da ibai-ibilguen eta ibaiertzeko basoa-

ren egoera hobetzea; izan ere, horiek hobetzea ezinbestekoa da ibai ekosistemaren egoera ona lortzeko; ibaien ur-hustuketarako ahalmena handitzen du egindakoak. Lemoizko presak 7 metro luzera zuen, eta 3.000 euro inbertitu dituzte lan horietarako. ◀

## Zainduz Programak hitzaldi ugari ditu egunotarako

**A**urrera doa Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak bultzatutako Zainduz Programa, mendetasun-egoeran dauden pertsonen familia-zaintzaileentzat laguntzeko egitasmoa. Hurrengo berbaldia Zahartzea Etxean izenekoa izango da, hilaren 25ean eta 30ean, Berangon eta Plentzian, hurrenez hurren. Urriaren 27an eta 28an, ostera, mendeko diren pertsonetikiko komunikaziorako trebetasunen gaineko hitzaldia emango dute Sopelan eta Gorlizan, hurrenez hurren. Azkenik, barreterapia egingo dute Plentzian (azaroak 25) eta Berangon (azaroak 27). Saiok udalerrietako jubilatuen etxeetan izango dira. ◀

harremanetarako: 946 763 999

**OSABIDE HORTZ KLINIKA**  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96

**GURE ETXEA**  
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA  
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

**PINTXOAK**  
**OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:**  
**RAZIOAK-BOKATAK-PLATER KONBINATUAK**  
**AFARIAK ETA URTEBETETZEAK**  
**ENKARGUZ**  
Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA





Tania de Sousak kontzertua eskainiko du irailaren 25ean; egun horretako egitaraua osatuko dute Gildas, Libe eta Abalone Dots taldeek. © TANIA DE SOUSA

# Badator Kosta Fest!

**Gure kostaldearen babesa** aldarrikatuko dute Sopelan bost egunez, hamaika ikastaroren eta ekitaldiren bitartez. Udalak eta herriko hainbat eragilek antolatu dute jaialdia.

**I**railaren 23tik 27ra izango da Sopena Kosta Fest jaialdiaren bigarren edizioa. Surfa, natura eta musika ardatz dauzka festibalak, eta hamaika ekitaldi antolatu dituzte, askotarikoak. Kosta Festek agertoki nagusi bi edukiko ditu: alde batetik, hondartzaren ingurua (Arriatera, Atxabiribil eta Barinatxe); eta bestetik, udaletxeko plazan ipinitako karpa. Hala ere, Larrebasterrako Urko kiroldegira behin

egingo dute ihes, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoez gozatzeko.

Esan legez, tarte zabala eskainiko zaio musikari, eta kontzertuak izango dira aste-akabuko ekitaldi nagusietako bat. Barikurako, hain zuzen ere, Suediako Baskery taldearen kontzertua iragarri zuen Udalak, beste hiru taldegaz batera. Baskery ezin da etorri Sopelara, baina Abalone Dots taldeak ordezkatzeko du. Aurten ere launa tal-

de igoko dira oholtzara gau bakoitze-ko; Suedia, Andaluzia eta Euskal Herriko musika-taldeak elkartuko ditu Sopela Kosta Festek. Besteak beste, Gildas talde sopoloztarra, The Uski's eta Kiko Veneno musikari ezaguna entzuteko aukera egongo da.

## Emakumeen surf-bilkura

Emakume surflariei ere parte hartze-ko gonbita egin diete. Irailaren 25ean, barikua, teknika hobetzeko aholkuak jasoko dituzte, 17:30etik aurrera. Irailaren 18a da ikastaro horretan izena emateko azken eguna. ◀

info+: [sopelakostafest.com/kultura@sopela.eus](http://sopelakostafest.com/kultura@sopela.eus)

## Ekitaldi batzuk

### Irailak 23, eguaztena

**16:30 / 18:30** Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Txo, MikMak txikia* ikuskizuna, Urko kiroldegian. Sarrera: 5 euro. Sopelan erroldatuentzat, irailaren 18ra arte salgai; eta besteentzat, 21etik 23ra.

**19:00** «Domo geodesikoa eta bioeraikuntza» tailerra, udaletxeko plazan.

**19:30** Pirritx, Porrotx eta Marimototsen kalejira, Dunbots txarangagaz, Urkotik udaletxeko plazaraino.

### Irailak 24, eguena

**20:30** Surf-zinema, udaletxeko plazako karpan. Besteak beste, *Basque Country Big Waves* dokumentalaren estreinaldia.

### Irailak 25, barikua

**19:30** Itsas kantak kalez kale, Erroia tabernatik abiatuta.

**21:00** Gildas, Libe, Abalone Dots eta Tania de Sousaren kontzertua, udaletxeko plazan.

### Irailak 26, zapatua

**09:00** Euskal Herriko elkarten arteko surf-lehiaketa, Arriatera hondartzan.

**10:00** Garai bateko furgoneten erakusketa, Arriaterako aldapan.

**12:00** Kometa tailerra, eta festa, Arriateran.

**18:30** Ricardo Somocurioren arte-erakusketa eta Peña Txuri Surf Taldearen argazkiak, Atxabiribil hondartzako sarreran.

**18:30** Sustrai Beltzak Sound System, Atxabiribil hondartzako sarreran.

**21:00** Audience, The Uski's, Kiko Veneno eta The Agapornis taldeen kontzertuak, udaletxeko plazako karpan.

### Irailak 27, domeka

**10:00** Tai xi ikastaroa, eta erakusketa, Arriatera hondartzan.

**11:00** Bigarren eskuko azoka, udaletxeko plazako karpan.

**13:00** Atun erreka, udaletxeko plazan.

**19:30** Fracking bertso-saioa, udaletxe aurreko plazan.

**20:30** Kalejira Barinatxe hondartzara, Gibelurdiñek musika-taldeagaz.

**21:30** *Desioak zerura*, Barinatxen. Faroltxo biodegradagarriak botako dituzte zerura. Faroltxoen txartelak 2 euroan daude salgai, turismo-bulegoetan. Aimar del Pozo ume gaixoa laguntzeko izango da dirua.



## Musika-bandek hartuko dituzte Erandioko kaleak

### Egitaraua

#### Irailak 18, barikua

**20:00** VHS Street Band, Altzagan. Brazzet Molto Vivace, Astrabuduan.

#### Irailak 19, zapatua

**12:00** Swingdigentes, Altzagan. Les Anis Maniacs, Astrabuduan.

**13:30** Lokomotores, Altzagan. Artistas del Gremio, Astrabuduan.

**19:30** Les Anis Maniacs, Altzagan. Swingdigentes, Astrabuduan.

**21:00** Artistas del Gremio, Altzagan. Lokomotores, Astrabuduan.

#### Irailak 20, zapatua

**12:30** Brazzet Molto Vivace, Altzagan. VHS Street Band, Astrabuduan.

**H**erri ezberdinetatik heldutako musika-bandak entzungo dira irailaren 18tik 20ra, Altzagan eta Astrabuduan, Erandio Musikalean jaialdiaren 25. edizioan. Hala, bariku arrastian, zapatu osoan eta domeka eguerdian kaleak musika-doinuez beteko dituzte taldeek, aldi berean, auzo bietan kalejirak eginez. Ondokoak dira Erandiora gerturatu-ko diren bandak: VHS Street Band (Kantabria), Brazzet Molto Vivace (Araba), Swingdigentes (Madril), Lokomotores (Valladolid), Les Anis Maniacs (Baiona) eta Artistas del Gremio (Zaragoza). Leioan ere ospatzen zen lehen Musikalean. ◀

## Bertsoa, musika eta dantza batera, Algortan

**B**ertsoa, herri-musika eta dantza batzen dituen ikuskizuna eskainiko du domekan, irailak 20, ALBE Algortako Bertsolari Eskolak. Hitzordua eguerdiko 12:30ean ipini dute Fadurako Bolue futbol-zelaian; sarrera, doan. *Hitzaren dantza* ekitaldian, beste hainbat lagunen laguntza edukiko dute ALBEkoek: bertsoez, Amets Arzallus, Miren Amuriza, Anjel Mari Peñagarikano eta Josu Landeta arduratuko dira; eta dantzan egingo dute Agurra (Algorta), Itxas Argia (Getxo), Berantzagi (Areeta) eta Simon Otxandategi (Berrango) taldeetako kideek. Musika-ri dagokionez, trikiti eta panderoen

doinuak jarriko dituzte hurrengo bi-koteek: Xabi Aburruzagak eta Joseba Urrutiak, Roberto Etxebarriak eta Kepa Arrizabalagak zein Koldo Etxebarriak eta Unai Etxebarriak.

ALBEkoen «aspaldiko ametsa» da jaialdi berri hori, Joseba Santxo bertsolari-eskolako arduradunak adierazi duenez. Berak akordura ekarri legez, «Fredri Paia ikerlariak behin baino gehiagotan aipatu izan du lehenagoko denboretan ez zela hain arrotza dantzariak dantzan ikustea bertsolariek abestutako bertsoen erritmoan». Aurten, ALBEk 35 urte betetzen dituela baliaturik, aurrerapausoa eman dute. ◀





URIBE KOSTA

# Euskaraz olgetako aukera dago hainbat herritan

Udako oporrak amaituta, Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak irailaren 10ean abiatu zuen berriro Euskaraz Olgetan egitasmoa. Horrenbestez, hilaren 17tik 21era, jolas koloretzu eta erraldoiak egingo dituzte Plentziako Astillero plazan (17:30-19:30), Urdulizko Anisonekoa plazan (17:30-19:30), Gorlizko Ibarretza plazan (12:00-14:00), Larrabaste-

rrako Urgixieta plazan (12:00-14:00) eta Armintzan (17:00-19:00). Euria egiten badu, ostera, honako lekuetan egingo dira: Armintzako pilotalekuan, Plentziako udaletzeko arkupeetan, Urdulizko probalekuan, eta Gorlizko pilotalekuan. Larrabasteran, ordea, euriagaz ere Urgixietan egiten jarraituko dute. Gero, irailaren 24tik 28ra bitartean, euskal dantzak

eta musika-jolasak egingo dituzte, familia-giroan.

## Gurasolagun eta berbalagunak

Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak irailaren 7an zabaldu zuen Berbalagun eta Gurasolagun egitasmoetan izena emateko epea; hilaren 30era arte egongo da horretarako aukera, parte hartu! ▶ info+: [ukberbalagun@gmail.com](mailto:ukberbalagun@gmail.com) / 688 899 868

2015/09/18 - 2015/09/20 - 10:00

## Euskadiko Zaldien Salto Txapelketa

Igeltzerako zelaia | Urduliz Saritan, 6.115 euro banatuko dituzte. Doan.

2015/09/18 - 20:00

## VHS Street Band

### musika-taldearen kalejira

Irailaren 23a plaza (Altzaga) | Erandio Erandio Musikalean jaialdiaren barruan. Ostera, hilaren 20an, domeka, Astrabuduan zehar ibiliko dira, 12:30ean Josu Murueta plazaatik abiatuta.

2015/09/18 - 20:00

## Brazzet Molto Vivace

### musika-bandaren kalejira

Josu Murueta plaza (Astrabudua) | Erandio Erandio Musikalean jaialdiaren barruan. Ostera, hilaren 20an, domeka, Altzagan zehar ibiliko dira, 12:30ean Irailaren 23a plazaatik abiatuta.

2015/09/19 - 09:00

## Sopelako V. Downhill skate txapelketa

Landaluze kalea | Sopela Goizean, *longskate* jaitsiera egingo dute; eta arrastian, 16:00etan, esialom eta *slide* probak. Izen-ematea, irailaren 13ra arte, 10 euroan. Informazio gehiago: [habitantesdelacuesta.wordpress.com](http://habitantesdelacuesta.wordpress.com)

2015/09/19 - 11:00

## Oinezkoen pausora ibilaldia

11. edizioa Sakoneta kiroldegia | Leioa Herrigune Leioak antolatuta. Aurten beltz koloreko zehrak margotu dituzte lurrean ibilbidea markatzeko. Parte-hartzea, libre.

2015/09/19 - 11:40

## Getxoko IX. Milia

### Telletxe plaza (Algorta) | Getxo

Itxartu Taldeak eta Getxoko Atletismo Taldeak antolatuta. Kategoría desberdinetako korrikalariak izango dira. Izen-ematea irailaren 17ra arte egin daiteke, doan. Informazio gehiago: [itxartu.itxartu@gmail.com](mailto:itxartu.itxartu@gmail.com)

2015/09/19 - 12:00

## Swingdigentes

### musika-bandaren kalejira

Irailaren 23a plaza (Altzaga) | Erandio Erandio Musikalean jaialdiaren barruan. Egun berean, Astrabuduan zehar ibiliko dira, 19:30ean Josu Murueta plazaatik abiatuta.

2015/09/19 - 12:00

## Les Anis Maniacs

2015/09/19 - 13:30

## Artistas del Gremio musika-bandaren kalejira

Josu Murueta plaza (Astrabudua) | Erandio Erandio Musikalean jaialdiaren barruan. Egun berean, Altzagan zehar ibiliko dira, 21:00etan Josu Murueta plazaatik abiatuta.

2015/09/19 - 14:00

## Aire Inauteria

Barinatxe hondartza | Sopela Airetik Parapente Taldeak antolatuta. Parte-hartzea, libre.

2015/09/19 - 18:00

## Disko-festa, Xaiborregaz

Lutxana | Erandio Lutxanako jaletako egitarauaren barruan. Doan.

2015/09/19 - 20:00

## Dantza gurea ikuskizuna

Kurtzio kultur etxea | Sopela Idurre Azkuek eta Joseba Irazokik zuzeneko musikagaz lagundutako dantza-koreografia sortu dute Kurtzion, eta bertan egingo dute aurreinealdia. Sarrera: 3 euro.

2015/09/20 - 08:00-20:00

## Getxo autorik gabe ekimena

Algorta eta Areetako erdiguneak | Getxo Mugikortasunaren Europako Astearen barruan, 12:00etatik aurrera, kaleak beteko dituzte udalerriko kirol-taldeen bultzatutako jarduerak: zumba eskolak, umeentzako puzgarriak, bizikletak, eta abar.

2015/09/20 - 12:30

## Hitzaren dantza ikuskizuna

Bolue futbol-zelaia (Algorta) | Getxo ALBE Algortako Bertsolari Eskolak antolatuta. Musika, bertsoak eta dantza batzen ditu ikuskizunak. Sarrera, doan.

2015/09/20 - 13:00

## Mendibaiarte abesbatzaren kontzertua

Lutxana | Erandio Lutxanako jaletako egitarauaren barruan. Doan.

2015/09/23 - 19:00

## Bioeraikuntzako tailerra

Udaletxe aurreko plaza | Sopela Sopela Kosta Fest jaialdiaren barruan. Doan. Informazio gehiago: [sopelakostafest.com](http://sopelakostafest.com)

2015/09/23 - 19:00

## Jaume Casals politikari katalanaren berbaldia

Villamonteko kultur etxea (Algorta) | Getxo



musika-bandaren kalejira

2015/09/23 - 20:00

Alternatiba alderdiak antolatuta. «Catalunya 27S. Construyendo poder popular» izenburupean, Oskar Matutegaz batera emango du berbaldia CUPEko buruak. Sarrera doan.

musika-bandaren kalejira

2015/09/19 - 13:30

Josu Murueta plaza (Astrabudua) | Erandio Erandio Musika leian jaialdiaren barruan. Egun berean, Alitzagan zehar ibiliko dira, 19:30ean Josu Murueta plaza tik abiatuta.

musika-bandaren kalejira

2015/09/23 - 20:00

Txorimaloren 10. urteurrena antolatzeko batzar-irekia Txiki-Otaegi (San Nikolas) plaza | Getxo Getxo Txorimalo gaztetxearen 10. urteurrena, 2016ko apirilaren 1etik 10era ospatuko dute. Hori prestatzeko, eguazteneko egingo dituzte batzarrak Algotako txoko horretan.

GETXO

Ikusi Makusi ekimena, Algortan

Getxophoto jaialdiaren barruan, zapatu honetan, irailak 19, argazkigintza eza-gutzeko hainbat jolas edukiko dute txikiak. Hitzordua 10:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara jarri dute Algotako Zabala ikastetxean. ◀

ERANDIO

Olgetan Solas, Lutxanako jaietan

Aurretik ospatutako jaietan egin legez, Lutxanako festetarako euskarazko jolasak antolatu ditu Erandioko Udalak. Olgetan Solas ekimena hilaren 19an, zapatua, izango da, 11:00etan. Udaldiko azkeneko saioa izango da. ◀

PLENTZIA

Ludoteka, kalera martitzen denetan

Ohi den legez, hilaren 22an, Ontziola plazan jarri dute hitzordua arrastian, 17:00etatik 19:00etara. Ez da beharrezkoa aurretik izena ematea, ezta kuota-rik ordaintzea ere. Umeek tutoreak lagunduta joan behar dute. ◀

GETXO

Baratzak berbagai, Jakoba Errekondo agronomoagaz

Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak (UKITX) gonbidatuta, irailaren 23an, eguaztena, *Bizi baratzea* liburuaz egingo du berba Algortan. Jakoba Errekondo agronomoak. Hitzordua 19:00etan ipini dute, Villamonte kaleko kultur etxean. Modu atsegin eta ulerterrazean, baratzearen abenturan murgiltzeko grina daukatenentzat gida ezin hobea eskaintzen du lan horrek. ▶



GETXO

Aralar mendilerroko Ganboa tontorrera igoko dira zapatu honetan

Ikasturte hasieragaz batera, irteera antolatu dute Txorimalo Gaztetxeak, Ungari Mendi Taldeak eta Egizu Getxo Euskaldun elkarteak. Oraingo honetan, Aralar mendilerroko Ganboa mendia (1.413 metro) igoko dute, irailaren 19an. Hala, zapatuan, goizeko 09:00etan ipini dute hitzordua, Algotako Fadura kiroldegiko parkingean. Autoa eroateko eskatu dute. ◀

izen-ematea: egizugetxo@gmail.com



Pirritx, Porrotx, Marrihotots

ITSAS KULTUR FAKTORIA


Irrien lagunak, osterera ere, Sopelan

Noiz: Irailak 23, eguaztena. 16:30 / 18:30

Non: Urko kiroldegia (Larrabastera)

Sarrera: 5 euro

Salmenta: Sopelan erroldatuentzat, irailaren 18ra arte; gainerakoentzat, hilaren 21etik 23ra, ohiko lekuetan. (HIRUKAn zozketan, ikus.: 21. orria)



1

Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

2

www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.





Tximiskeriak!!

AITOR  
GARAGARZA CAMBRA  
Langilea

## Biolentziaz eta ekialde hurbila

**G**urea biolentzien inguruko diskurtsoa oso erro-tuta egon den herria da. Askotan hainbat alderdiren diskurtsoak ETak eragin-dako biolentzia izan du ardatz nagusia, beste asko horretan gel-ditu dira eroso sentitzen baitzi-ren. Gainera, etxeko lanak bidal-tzen dituzte besteen etxeetara.

Bitartean, haur baten argaz-kiak hautsak arrotu ditu. Gogo-ratu beharra dago hau ez dela atzoko kontua eta errefuxiatuak ez datozela soilik Siriatic, bai-ta Libiatik ere. Are gehiago, Irak edo Afganistango inbasioak erre-fuxiatuak sortu ditu. Errefuxiatu izan gaitezke gure jaioteritik ate-ra gabe, hau da, gerrak eragin-da gure herritik beste zonalde ba-tera alde egin behar dugunean. Batzuetan herrialdearen mugak zeharkatuko ditugu eta beste ba-tzutan ez. Noski, haietaz soilik hitz egingo da gure mugak "arris-kuan" badaude.

Memoria eta zoru etikoa aspal-ditik modan dago gure herrian. Oraingo honetan memoria egin-go dut. Bazenekien Hego Euskal Herrian PNV, PSOE, PP eta UPN Libiako interbentzio militarra-ren aldekoak izan zirela? Hauek, ere, Afganistanera tropa gehiago bidaltzearen aldekoak izan ziren. Siriaren kasuan, aldiz, eskuin unionista soilik agertu da alde.

Hortaz, zoru etikoaren pregoi-lariek 800 hildako baino askoz gehiago eragiten dituzten Gerrak babesten dituzte. Noski zorua ez da gurea eta ez dauka eusko labe-la, baina bai gasa zein petroleoa. Honetaz gain, egunero munduan milaka eta milaka hildako era-giten dituen sistema kapitalis-taren defendatzaile ortodoxoak dira. Kapitalismo ase ezina ekial-de hurbileko gerra inperialisten kausa nagusia dugu.

–Biharko etxeko lanak, eka-rrri erantzunda hurrengo galde-rak: Zer da biolentzia? Eta bio-lentoak?◀

# Leioara eta Getxora ere helduko da Bosteko 2015



Arrigorriagan abiatu dute Bosteko 2015 erakusketa. © BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

**Kultur Leioa aretoan** urriaren 20tik azaroaren 8ra egongo dira Ane Riaño, Roberto Arrizabalaga eta Iker Serranoren artelanak. Abenduaren 9tik 29ra bitartean, ostera, Algortako Torrene aretoan egongo dira ikusgai.

**B**ost udalerrri bizkaitarretara eroango du arte garaikidea Bosteko 2015 ekimenak, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Sailaren babesagaz. Erakusketak Arrigorriagan abiatu du ibilbidea; ondoren Basaurin, Zornotzan, Leioan egongo da, eta, azkenik, Getxon. Kultur Leioak urriaren 20tik azaroaren 8ra

hartuko ditu hautatutako hiru artisten lanak. Abenduaren 9tik 29ra, ostera, Algortako Torrene aretoan ipiniko dituzte Ana Riaño (Bilbo), Roberto Aguirrezabala (Sestao) eta Iker Serranoren (Iruñea) artelanak.

Riaño eta Serrano margolariak dira. Biak dabilta pintura errealista garaikidearen eta figuratiboaren ar-

## Egitaraua

### Arrigorriaga

Irailaren 25era arte  
Arrigorriagako erakusta-aretoa

### Basauri

Irailaren 29tik urriaren 17ra  
Arizko Dorretxea

### Leioa

Urriaren 20tik azaroaren 8ra  
Kultur Leioa

### Zornotza

Azaroaren 11tik abenduaren 4ra  
Zelaieta zentroa

### Getxo

Abenduaren 9tik 29ra  
Torrene aretoa (Algorta)

loan, baina estilo desberdinak erabili-liz. Roberto Aguirrezabalak argazki-gintza lantzen du, narrazio formatuan, erretratu «fikzionatuaren» eta paisaia eraldatuaren artean. Hala, euren lana-kaz osatuko da *Figurazioa eta figura-zioak* izeneko erakusketa kolektiboa. Bertan, gizakiaren figura bere ikerke-ta artistikoaren ardatz gisa berresku-ratzeko ideia aztertuko dute, foru itu-riek azaldu dutenez.

1998an sortu zen Bosteko ekimena, eta Euskal Herriko 70 artistaren baino gehiagoren lanak erakutsi eta ezagu-tarazi ditu ordutik hona. ◀

## EHUko zientzia-fikziozko idatzien lehiaketa, abian

**Z**ientzia fikziozko eta gai zientifi-koei buruzko fantasiako gene-roan sar daitezkeen kontakizun denak aurkez daitezke Alberto Handia Zientzia Fikziozko XXVII. Literatura Lehiaketara; beti ere aurretik argitara-tu barik badaude, EHU Euskal Herriko Unibertsitateko iturriek adierazi dute-nez. Lanak euskaraz zein gaztelaniaz idatz daitezke. Originalak aurkezteko epea urriaren 19an amaituko da. Es-kuz eman ahal izango dira, edo postaz ere bidal daitezke.

Lanak gutxienez 15.000 eta gehie-nez 25.000 berba edukiko dituzte, orrialde batetik idatzita, 12 puntu neu-rriko letra eta lerroen arteko 1,5 espa-

zioa erabiliz. Inprimaketaren kalitatea irakurtzeko erraza izango da. Ez da onartuko ipuin laburren multzo bat, euren artean inolako erlaziorik ez ba-dago argumentuaren aldetik, hau da, lan beraren kapitulu desberdinak ez badira.

Sariei dagokienez, 2.000 euro ja-soko ditu epaimahaiak onena jo-tzen duen kontakizunaren egileak; eta 1.000 euro, bigarrenak. Erabakia abenduaren 18an jakinaraziko dute, urte akabua ospatzeko Zientzia eta Teknologia Fakultatean egingo den ekitaldian. Hautatu ez diren lanak suntsitu egingo dituzte. ◀

info+: [ttiki.com/341377](http://ttiki.com/341377)

## Unai Aranzadi getxoztarraren *Jambo Amani?* dokumentalak beste sari bat jaso du

**U**nai Aranzadi getxoztarrak egin-dako *Jambo Amani?* (Bakea dugu?) dokumentalak Boliviako Suc-re hiriko Giza Eskubideen Nazioarteko XI. Zinemaldiaren Pukañawi saria jaso du. Epaimahaiak aipamen berezia ere eman dio filmari, «bere soinu-erre-gistro onagaz eta argazki bikainagaz, Kongoko milizietako borrokalari ohi batzuek bakea eta errespetuzko bizi-tza edukitzeko, eta senideentzat etor-kizun hobeago bilatzeko (indarkeriari uko eginez eta giza eskubideen urra-keetatik urrunduz) egiten duten es-fortzua erakusten duelako». Aranza-dik Getxoko Udalaren diru-laguntza jaso zuen dokumentala ekoizteko. ◀



# «Umea norbanako bezala garatzea da helburua»



Leioako Betiko Ikastolako gerente da Ainhoa Madariaga.

**Konfiantzaren pedagogia proiektu** berritzailean murgilduko da Leioako Betiko Ikastola.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

**G**altza bete lan izango dute aurtengo ikasturtean Leioako Betiko Ikastolan, Ainhoa Madariagak azaldu duenez. Haur Hezkuntzan proiektu berritzailea ezarriko dute, horretarako profesionalak trebatuz, gurasoei mintegia eskainiz eta ikasgeletan aldaketa arkitektonikoak eginez.

**Zergatik erabaki duzue Haur Hezkuntzan pauso berri hori ematea?**

Haur Hezkuntzan ezarriko dugun berrikuntza badator, pixka bat, koherentzia ematera ikastolan abian daukagun proiektu osoari. Azken batean, duela urte batzuk hasi ginen konpetentzietan oinarritutako EKI ereduarekin lan egiten Bigarren Hezkuntzan eta beste maila batzuetan. Lehen Hezkuntzan eta Haur Hezkuntzan ere pauso txikiak emanak gara. Horrekin proiektu osoa gorpuztuko dugu. Oraingo pausoa berritzailea da gizarte-mailan, baina Betiko Ikastolarentzat ez da guztiz berria.

**Zeintzuk dira ildo nagusiak?**

*Konfiantzaren pedagogia* izeneko ereduak umea jartzen du hezkuntza-

prozesuaren erdigunean. Oinarria da haurra bere erritmora ikasten joatea, esploratuz, imitatuz...; ez horrenbeste aginduak jaso, baizik eta informazioa eskuratuz. Neska-mutilei askatasuna ematen zaie hori guztia egiteko.

**Rafael Cristobalen eskutik egingo duzue ibilbide berria.**

Horrela da. Rafael Cristobal Medikuntza, Psikiatria eta Neurologian doktorea da; umeen psikiatrian aditua; eta

*“Mintegia izango dute aita-amek, jarraipena egin eta guraso bezala trebatzeko”*

lan asko argitaratu eta hainbat proiektu zuzendu ditu. Horretaz gain, irakaslea da Mondragon Unibertsitatean eta EHUn. Baina, bere curriculumak baino, guretzat garrantzitsuagoa da *Konfiantzaren pedagogia* ereduaren aditua dela; bere eskutik etorri den hezkuntza-proiektua da; dagoeneko, hainbat ikastolatan jarri da praktikan.

**Zer arlo jorratuko dituzue?**

Cristobalek lantalde zabala dauka; baina, gure kasuan, lortu dugu bera etortzea hona. Berak egingo du proiektuak izango dituen arlo desberdinen jarraipena. Umea ardatza izan-

## Mintegiaren egutegia

**Irailak 25**

Sarrera. Gurasotasuna eta bikote-krisia. Umearen lehen sei urteen garrantzia.

**Urriak 30**

Senaren eta institutuaren teoria. Konfiantzaren pedagogiaren oinarriak.

**Azaroak 13**

Umearen erritmo biologiko eta intelektualak.

**Abenduak 18**

Atxikimendu-sena. Jatorria eta ontogenia.

**Urtarrilak 29**

Banatzea, galera. Banaketa, eskolatzean.

**Otsailak 19**

Atxikimendu-institutuaren ikerketa. Atxikimendu-motak eta ezaugarri familiarak. Diadaren barne-fenomenoa.

**Martxoak 11**

Diadaren barne-fenomenoa. Auto-estimua jatorria.

**Apirilak 22**

Ustiapen eta garapen kognitiboa.

**Maiatzak 13**

Ihes eta beldur-sena, eta horren agerpenak.

da; arlo desberdinak jorratuko ditugu, ez bakarrik profesionalen (irakasleak, aholkulariak eta zuzendaritza) formazioari dagozkionak. Guraso-mintegia ere emango du Cristobalek, aita-amek aldaketen jarraipena egin dezaten, eta guraso bezala ere treba daitezen. Hezkuntza-arloan dabilen lagunek ere parte hartu ahal izango dute hiler, ostiral arratsaldeetan, 17:30etik 19:30era, egingo diren saioetan.

Azkenik, begi-bistakoak izango dira aldaketa arkitektonikoak: umeak espazio irekietan egongo dira. Horretarako, hormak bota beharko dira, eta gelak berriro margotu, uda partean. Bestalde, umeen garapenerako espresuki sortutako egitura berriak izango dituzte gelen barruan: lasai egoteko leku estaliak, gora eta beheara joateko eskailerak, euren buruak botatzeko txirristak... Guraso-talde batek prestatuko ditu horiek.

**Zelan eta noiz arte eman daiteke izena mintegian?**

Mintegiaren lehenengo saioa irailaren 25ean izango da. Gauzak horrela, hila-ren 18ra arte egongo da izena emateko aukera. Saio bakoitzak 20 euroko salneurria izango du. Mintegi osoan parte hartuz gero, ordea, 180 euro ordaindu beharra egongo da. Izena emateko ikastolako bulegora jo beharko dute interesdunek. Aipatuko nuke saio bakoitzeko tokiak mugatuak izango direla, eta Betiko Ikastolako gurasoek lehentasuna izango dutela. ◀



Adimen-garapena

**GORKA AURRE URTZAA**  
Irakaslea

## Bihar baino, gaurtik hastea hobe

kasturte berrian ikasleek ikasketei zintzo ekiteko gogoz dira. Gurasoak, seme-alaben konfiantzan. Iazkoan baino hobeto jardungo duten ustez. Bideak, hasi berri, luze joko du. Bitartean gorabehera ugari, oztopo larri. Hasierako itxaropena, gardenak; errealitatea, gordina.

Hobera egiteko, ikasleek euren jarrera eta trebetasunak, errotik aldatzea, beharrezko. Jarraituz soilik hobetzeak, emendio gutxi. Trebetasunak bakarrik aldatzeak, onura murri. Aldaketarik ezean nekez hobera; hobera ezean... txarrera zuzenean. Hobetzeko, ohiturak, estrategiak, eta metodoak, aldatu behar. Biharko utziak gaur kalte; geroratu baino gaur hastea hobe. Bestela ezinak jo gaitzake. Eraldatzeak norbere burua eta trebakuntzak sakon aztertzea dakar.

Mundua ikasten diharduenaren esku dago. Berrikuntzak ez du teknikara soilik mugatu behar. Azkarrago eta gehiago ikasteko trebakuntzak barneratzeko metodo, prozesu eta/edo tresnez jabetu behar dugu. Berrikuntza intelektuala. Ezinbestekoa.

Aldaketa handiak jasanez gabilta. Informazioak, goitik jotzen gaitu. Gutxi irakurtzen da. Informazioaren azala dugu irakurgai. Ikasleek maila intelektualean umezurtz ditugu, noraezean, zer egin akio eta sarritan dute... hainbat agobio.

Gutxi irakurri, gutxiago ulertu eta ikas-ohituretatik urruti. Horrela dabilta ikasleak beti. Gurasoak, askotan ez dira eredu-garri, eta itxaropena gorabehera, semeekin dituzte ikasketa arazo ugari; bideratzeko dute egonarri urri, batzuetan galdetu ezin inorri eta sarri ezin egin aurre egoera latzari.

Itxaropena gorabehera..., laster dira gogoa lausotu eta asmoa iluntzera abiatutako egoera artegatsu eta bihurriak..., ez badira garaiz jartzen egoki diren neurriak. ◀



## «Neure burua underground munduan ikusten dut»

**Joseba Irazoki Agirre** 41 urteko musikari beratarra zapatuan, 20:00etan, izango da Sopelako Kurtzio kultur etxean, Idurre Azkuegaz batera *Dantza gurea* edo *Bailar por bailar* ikuskizunean. Eskarmentu handiko konposizio gile zein gitarrista da. Atom Rhumban, Joseba Irazoki eta Lagunak, eta Duncan Dhun taldeetan ere jo du, baita gizon-orkestra gisa ere.



IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

Joseba Irazokik telefonoz goxo hartu du HIRUKAren deia, obraren estreinaldirako egun batzuk falta direnean. Musikan denetarik egin izan arren, umil agertu da.

### Zertan datza *Dantza Gurea* ikuskizuna?

Bi partaide gara proiektu berri horretan: Idurre Azkue eta biok. Baina errango nuke gehiago dela Idurrek egin nahi zuen gauza bat. Berak ideia zeukan, eta musika behar zuen. Gerora deitu ninduen ni.

Ez dugu pentsatu biok batera hasieratik. Gero ibili gara bion artean moldatzen. Berak egin nahi zuen zerbait nahiko minimalista eta nahiko askea; ize-nak propio dio: “bailar por bailar”. Ezertaz kezkatu gabe dantzatzek ematen duen sentsazioa transmititu nahi du Idurrek (dantzaren profesionala baita): dantzatzek berak dakarren gozamena. Hori da jarri duen abiapuntua, dantzatzean hartzen duzun plazer-a.

Hori kontatu zidan Idurrek. Gainera, aipatu zidan zuzeneko batean ikusi ninduela, bakarka egiten ditudan kontzertuetako batean, gizon-orkestra moduan; horiek ere nahiko kontzertu askeak dira: bakarrik joanda, badaukat askatasuna kontzertua momentuan aldatzeko, modu batean nahi dudana egiteko, ez daukadalako beste taldekiderik. Puntu aske hori gustatu zitzaion; ikusi zuen berak buruan zeukan proiektu aske hori gauzatzeko balio zuela.

Elkarrekin entsegu batzuk egin ditugu, jada biok elkarrekin mugitu izan dugu; bion artean landu

dugu. Baina hasieratik Idurre Azkueren proiektua izan da, gehiago.

### Orain arte, emanaldietan zer moduko dantza-kontzertua atera zaizue?

Larunbatean izango dugu estreinaldi aurrekoa hemen. Aurretik Bartzelonan aurkeztu zuen Idurrek,

“ Kanpoko zigiluetan ere editatu dut: Portugalgo zigilu txiki batean, Italiako batekin, AEBetako beste batean...” ”

han duen konpainia batekin, eta ez dakit hau bera egin duen. Nik uste ezetz, baina, agian, bai. Bere proiektua da, eta ni nago gehiago musikari bezala, eta, nolabait, “kontratatuta”.

### Zenbat entsegu egin dituzue?

Lau bat entsegu. Aste honetan igaro dugu jada uda lasaia, eta orain estreinatu baino lehenago egin behar ditugu bi intentsibo.

Bakoitzak etxean egin dugu lana, eta nahiko lotua egongo da gauza, baina hori pixka bat askea denez, bakoitzak berea egin duenez, eta nahiko mini-

malista denez, ez da gauza bat kristoren entsegu pila behar duena. Gehiegi ez dugu entseatu.

### Inprobisazioa egon dadin, aurretik lana behar da?

Bai, noski. Gehiena lotzen duzu, azkenean. Hasten zara inprobisatzen, baina gero, azkenean, beti bueltatzen zara egin dituzun gauzetara. Uste dut ezein pertsonak, ez dut erranen artisten artean soilik, beti ere formazioa duenak, urteetan ikasi duena inprobisaziora gehitzen duela. Inprobisazioa ez da ateratzen berehala.

### Zapatuan ez da inondik inora gure eskualdetik pasako zaren lehenengo aldia.

Bai, Uribe Kostan gustura izaten naiz. Plentziako Mikrofilm-en uste dut aurten dela egon ez naizen urte bakarra, baina hiru urtean joan naizela uste dut. Gero, taldean baxua jotzen duena Sopelara joan da bizitzera; horkoa da Borja Barrueta bateria; eta Atom Rhumba taldearekin, Algortan entseatzen dugu... Eta egia da, azkenengo urteetan, esango nuke asko bisitatzen zaituztedala: lanerako, entseguetarako... baina orain dela hiruzpalau urte ere, oporretan joan nintzen familiarekin, oporretan egoteko eta lasai egoteko gogo neukan, eta bisitatu nuen turista bezala. Bai, gustatzen zait, eta eroso nabil.

### Zer jarduera izango duzu aurten Atom Rhumbagaz?

Egia erranda, taldea nahiko geldirik egon da, nahi genuena baino gehiago, baina bakoitzak baditu bere





© JON USUAL

konpromisoak, familia eta abar. Eta, azkenean, atsedeen nahiko luzea ari gara hartzen. Baina joan den urtean, martxoan grabatu genuen horrelako kantu berri batzuen demo bat Tolosako Bonberenea gazte-txean, eta intentzioa geneukan zerbait publikatzeko ere. Baina demoa hor gelditu zen. Uda iritsi da, eta ez dugu gauza gehiegirik egin, azkenean. Oporrak hartu ditugu familiekin-eta. Orain dela gutxi, uda bukaeran egon ginen Javier Corcobadorekin, berarekin kantu inprobisatu bat egiten “Cancion de amor de un día” proiekturako, Atom Rhumba bezala kolaboratzen. Orduan, badirudi pixkanaka elkartzeko mugimenduak daudela, eta ez dut erranen hurrengo urtean diskoa edukiko dugunik ziur, baina nik uste hortxe-hortxe ibiliko garela.

**Atom Rhumbaz eta zure bakarkako saioez gainera, askotan besteentzat egin duzu lan, konposizioan. Gura duzuna adierazteko bidea ematen du horrek?** Desberdina da. Azkenean, berdin adierazten ahal da, nahiz eta musika zurea ez izan. Bestearen kantuari giroa ematean, zerbait ere ari zara ematen. Hori egin dut gehien; eta hasi nintzenean musikaz pentsatzen, neure burua besteentzat gitarrista bezala ikusten nuen gehienbat. Baina ikusten dut kolaborazioak egiten ditudanean ekarpena ematen diodala kantuari, artistari, taldeari. Fazeta hori oraindik interesantea iruditzen zait, eta eroso sentitzen naizen fazeta bat da. Konposizioarena azken urteotan jorratu dut bastante gehiago, nahiz eta gitarrista bezala

jarraitu dudan. Hasierako urteetan, ez nuen konposizioan lan egiten, eta gaur egun, agian horrek betetzen nau gehien, modu batera. Gero, buruhauste gehien ere horrek ematen dizkit, baina besteendako gitarrista izatea ez dut uste aparkatuko dudanik; hori da lanbidea, gehiago.

**Alde horretatik, Duncan Dhugaz eta Mikel Erentxu-negaz ibilia zara. Zer moduko esperientziak izan dira horiek?**

Onak. Urteotan ibili naiz Euskal Herritik jotzen, gitarrista moduan. Estatu mailan mugitzeko eta probatzeko gogoia ere pizten zaizu. Deitu ninduten biratxo batzuk haiekin egiteko. Joan den urtekoa nahiko potentea izan zen, Duncan Dhurena. Gustatu zait, eroso egon naiz, baina egia ere bada gehiago ikusten dudala neure burua “underground” munduan, musika estiloetan. Esperientzia bezala, ongi etorria. Pentsatzen dut gehiago egingo dudala, baina erosoago sentitzen naiz beste musika batzuekin.

**Bakarrik zein lagunakaz dozena bat disko kaleratu dituzu 2004tik hona; uzta handia da!**

Bai, ez didate kasu handirik egin, errango nuke ez direla disko guztiak entzun, baina bai. Bolada batean asko argitaratu nuen, inprobisazioa egiten nuenean. Gehienak disko konposatuak dira, eta kanpoko zigituetan editatu nuen: Portugalgo zigilu txiki batean, Italiako batekin, AEBetako beste batean... Izan dira disko batzuk, agian, Euskal Herrian galdu direnak

pixka bat, baina bolada hartan gauza anitz egiten nuen, editatzen nuen... Gustura nago. Gauza batzuk, igual, beste modu batera egingo nituzke, baina, orokorrean, lehengo diskografiarekin kontent nago. Hoberen islatzen du izan naizena urte horietan. Musikari batzuek, agian, gutxiago erakusten dute, eta nahiago dute dena landuta egotea; nik batzuetan argitaratu ditut gauza batzuk *maketeroak* erran daitezkeenak. Erakutsi nahi izan ditut nire lanak. Entzuten ditut; hor daude, eta nahiko gustura gelditu izan naiz.

***Irri eta solas zure lehenengo disko autoekoiztuaren “Beti” kanta dago Youtuben, 131 bisitagaz.***

Normala. Uste dut diskografia gehiena jarri duela Basque Music Fans izeneko taldeak. Ez nau harritzen. Disko hori lehengoa izan zen; etxean grabatu nuen, medio gutxirekin, eta ikusten dut kanta batzuk ondo daudela, baina beste batzuk pixka bat *maketeroak* dira. Halere, diskografia nahikoa daukat, batzuetan instrumentalak; abestuak izango dira bospasei disko. Orduan Youtuben kantaren bat edo ia gehienak gutxi entzunak izateak ez nau sorpresaz hartzen.

**Bestalde, zuk 2013an parte hartu duzun beste bideo-klip batek milioi erdi bisita baino gehiago jaso du, Gure Esku Dago-rena.**

Gauza ezberdinak dira. Gure Esku Dago-ren ekimena pila bat hazi da, nire ustez, eta logikoa da diferentzia egotea. Euskal Herri osoa hartzen duen historia bat da. Euskal Herrian dauden artistetako bat naiz ni, eta anitz daude hor. Normala da hainbeste diferentzia. Gainera, ez dut uste inoiz nire musika masetakoa izango denik. Ez nau arduratzen gehiegi.

**Iaz musikari-banda bategaz Joseba Irazoki eta Lagunak diskoa kaleratu zenuen. Zelan mugitu da?**

Kontzertu mailan, zerbait jo dugu. Ezin izan dugu gehiegi jo, denak lanpetuegi gaudelako, eta proiektuan ez genuelako kontzertu gehiegi eman nahi, eta egiten ditugunak baldintza onetan ematea nahi dugulako. Gehienak musikari profesionalak dira; familiak dituzte, eta astebururo gaztetxeetan ibiltzea argi genuen ez zela proiektu horretarako. Kritika aldetik, hagitz ongi funtzionatu du; kritika onak eduki ditu,

**“ Ezertaz kezkatu gabe dantzatzeak ematen duen sentsazioa transmititu nahi du Bailer por bailar obrak ”**

eta egin ditugun kontzertuetan ere, kritika guztiak onak izan dira. Pozik gaude. Euskal Herrian hasi direnez festibal gisakoak ateratzen, gustatuko litzaidake horrelakoren bat egitea. Aterako dugu single bat hurrengo urte hasieran, udazkenean grabatu nahi dugu, eta proiektuarekin jarraitu nahi dugu. Orain pixka bat lasaiago gaude, eta komentatu dugu bul-tzada berria eman nahi diogula. Gehiago jotzeko gogoz gabilta.

**Zer gurago duzu: areto handiak ala areto txikiak?** Txikiak. ◀



# Zaldizkorik onenak, Urdulizen



Antolatzaileek 6.000 euro baino gehiago banatuko dituzte sarietan. © BIZKAIKO HIPIKA FEDERAZIOA

**E**saera zaharrak dio: Oinezkorik gura ez, eta zaldizkorik etorri ere ez. Horren beldur ez dira Urdulizen. Izan ere, barikutik domekara, Igeltzerako larreek hartuko dituzte zaldizkorik trebeenak, Euskadiko Oztopo-jauziko Txapelketa eta Espainia mailako oztopo-saltoko egitarauaren proba bat jokatzeko prest. Euskal Hipika Federazioak eta Urdulizko Udalak antolatu dute txapelketa.

Federazioak pista bi egokitu ditu egunotan zaldizkoentzat: lehiaketakoa, belarrezkoa, 90 metroko luzera eta 60 metroko zabalera duena; eta entrenamendukoa, silize-hareaz betea, 60 eta 40 metro artean dituen.

Lehiaketak barikuan hasiko dira, goizeko 10:00etan, Estatu mailako probagaz. Ordu horretatik aurrera, zaldizko helduak, gazteak eta umeak lehiatuko dira sei proba ezberdinetan. Euren zaldiek egin beharko duten saltorik handiena 1,35 metrokoa izango da. Kimuek, ordea, lau proba baino ez

dituzte izango aukeran, eta haien abereen jauzirik nabarmenena lurretik 80 zentimetrora egin beharko dute.

## Euskadiko txapelketa

Zapatuan, goizeko 09:00etan, jarraituko du Espainia mailako oztopo-jauziko lehiaketak. Hala ere, hirugarren probagaz batera, Euskadiko txapelketarako saio baliagarriak hasiko dira. Gauzak horrela, kimuek metro bateko altuera gainditu beharko dute zaldiaz. Ondoren, haur-kategoriako neska-mutiek hamar zentimetro gehiagoko oztopoei egin beharko diete aurre. Helduen txandara ailegatuta, langa 1,30 eta 1,35 metrora igoko dute antolatzaileek. Eguna amaitzeko, gazteen kategoriakoek 1,20 metrotik gora egin beharko dute. Domekan, proba osagarriak izango dira 50 eta 80 zentimetroan, berriro ere Euskadiko txapelketak abiatu aurretik. Helduentzako proba nagusia 1,35 metrokoa izango da, Urdulizko Udalaren Sari Nagusia. ◀

## Sopelako Downhill, goitik beherako lehia

**H**abitantes de la Cuesta elkarteak eta Sopelako Udalak antolatuta, zapatu honetan, hilak 19, raider, longboardlari eta bestelako patinatzaileen festa bihurtuko dute Sopela. Izan ere, Sopela Downhill txapelketa bere bosgarren ediziora helduko da egun horretan. Hortaz, beste behin ere, Arrietara kaletik Berangora doan bidegorria eta Landaluze kalea itxita izango dira, zaleen gozamenerako. 1.200 metroko ibilbide horretan, orduko 55 kilometroko abiadura har liteke.

Proba goizeko 09:00etan hasiko da, entrenamendu-jaietsierakaz. Gurpilak berotuta, banakako lehia abiatuko

dute. *Raider* bizkorrenak buruz buruko lasterketetan jardun beharko dute ondoren, Sopela Downhill 2015eko txapelduna zein izango den erabaki arte.

## Arrastian, proba gehiago

Bazkalostean, berriz, txapelketak aurrera jarraituko du: 16:00etan, esla-lomak hartuko du aldatza, eta beranduago *slide*-ak. Ikuskizuna ziurtatuta egongo da proba bietan. Izen-ematea itxita dago proba denetan, eta zapatuan ezin izango da inskripziorik bete. Denera, 60 bat kirolarik jardungo dute zapatuan Sopelan. ◀



**Bowlzilla Getxo 2015** skate-proba izan zen pasa den aste-akabuan, Areetan (irudian) eta Kantera skate-parkean. 15 urteko Kalle Berglind suediarrek dotoretasun erakustaldia egin, eta ezustekoa eman zuen. Danny Leon madrildarra izan zen bigarren, eta Alex Halford ingelesa, hirugarren.

## HIRUKAko kide izan gura duzu?

Bi aukera dituzu:

### 1 Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

BAZKIDE ERABILTZAILE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 1.000 € + Urteko kuota: 30 €
- **Norbanakoak:** 100 € + Urteko kuota: 30 €

BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 200 € + Urteko kuota: 33 €
- **Norbanakoak:** 50 € + Urteko kuota: 33 €

### 2 Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

HIRUKA LAGUNA

- Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaile izango zara, hainbat onurez baliatuz.

☐ Bazkide Erabiltzailea

☐ Bazkide Laguntzailea

**Hiruka laguna**

☐ Urtean 35€ ☐ Urtean \_\_\_\_\_ €

Izena

NA

Abizenak

Helbidea

Posta kodea

Herria

Herrialdea

Telefonia

E-posta

Kontu korrante zenbakia

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona: Martikoena 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAko emandako datuak fixategi automatikoki bazez sartuko dira, erabiltzailearen harremanetan jarritako eta HIRUKAren informazioa eta publikazioa helarazteko. Bazeleko erabiltzailearen aurkezko baimenaren bidez bazez sartuko dira. Erabiltzaileek nahi duten datuak zuzentzeko edo kentzeko bide eskubideak bete ditzake helbide honetan: [hiruka@getxo.net](mailto:hiruka@getxo.net)



# Getxoko Milia, zapatu goizean



Iaz Santutxu taldeko Iraia Garcia nagusitu zen. © ITXARTU

Zapatuan, Getxoko IX. Miliaren pista bihurtuko da Algortako Telletxe kalea. Proba Itxartu elkarteak eta Getxoko Atletismo Taldeak antolatu dute, Udalaren laguntzaz. Getxoko Milia gizonezko zein emakumezkoen maila denentzako iraupen-erdiko herri-lasterketa da, eta bertan parte har dezakete txiki zein umeen mailetatik seniorretara artekoek, federatuek zein ez-federatuek.

Lasterketa goizeko 11:40tik aurrera egingo da, eta kategoria denak tarte-aterako dira, txikienetatik hasi eta gizonezkoen elite-mailakoak arte, 12:50ean. Parte-hartzaileek, behe-mailakoak izan ezik, hau da, kadetetatik federatuetara, lau itzuli eta erdi

eman beharko dizkiote Telletxe plazan eta kalean kokatutako zirkuituari, hau da, guztira 1.609 metro.

Antolatzaileek sari bereziak ezarri dituzte lasterketaren markak gainditzegatik. Lasterketa dela eta, Udaltzaingoak zirkulazioa eten egingo du ibilgailuentzat, 11:00etatik 13:15era.

Milian parte hartzeko izen-emaitea doakoa da. Interesatuak izen-abizenak, jaiotze-data, bizi-udalerria, eta kluba edo eskolaren izena eman beharko dituzte honako lekuetan: Kantxa Kirol Moda (Torrene kalea) edo Gaztañaga Kirolak (Amezti kalea). Epemuga eguna izango da, hilak 17. ◀

izen-ematea: [itxartu.itxartu@gmail.com](mailto:itxartu.itxartu@gmail.com)  
info+: [itxartu.com](http://itxartu.com)

## Ugarte bela arinaren saria, aste-akabuan

Asteburu honetan Getxoko urek sariketa berezia hartuko dute. Izan ere, zapatuan eta domekan zoodik gora estropadalarik hartuko dute parte Abrako Itsas Errege Klubeko Jose Luis Ugarte Bela Eskolaren bela arinaren sariketan. Proba horrek

25 urte beteko ditu aurten; Jose Luis Ugarte nabigatzaile historiko ezaguna 2008an zendu zen.

Bestalde, pasa den aste-akabuan, Yamamay, Gaitero eta Emilu ontziek irabazi zuten Getxoko Bela Kopa, hurrenez hurren A, B eta C kategorietan. ◀



Javier Galloren Yamamay ontzia nagusitu zen Koparen A kategorian. © ABRAKO ITSAS ERREGE KLUBA

## ZIRKULAZIO MOZKETAK IRAILAK 20, IGANDEA

**SKODA SERIEAK TRIATLOIA**

Lehiaketaren barruko proba ziklistarentzat aurreikusitako ibilbidea dela eta, zirkulazioa etengo da **ZUGATZARTE** eta **AREETAKO ETORBIDEETAN**, **EDUARDO COSTE** kalean eta **EREAGAKO HONDARTZA** eta **KIROL PORTUKO SARBIDEAN**, 07:30etik 13:00ak arte.

**AUTORIK GABEKO EGUNA**

08:00etatik 20:00etara, **AREETAKO ERDIGUNEAN** aparkatzea eta ibilgailu pribatuaren zirkulazioa mugatuko da. Mesedez, kendu ezazu zure ibilgailua aipatu kaleetatik. Eremu hauetan aparkatuta dauden ibilgailuak garabiak eramango ditu.





Oiane Zabalak (ezkerrean) eta Eider Gomezek (eskuman) 12 urte daroztate futboleko elkarrekin jokatzeko. Harremanetarako: 665 747 979.

# «Oso giro ona daukagu, datorrena geratzen da»

**Emakumezkoen futbolak beste** talde bat gal lezake. Uztailean, Abanto itxi zuen klubak, eta orain Berangorenak egin lezake.

INIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

**E**ider Gomez Perez (29 urte, aurrelaria) eta Oiane Zabala Egozkue (27 urte, erdilaria) Berango Futbol Taldeko jokalariek eta emakumeen adararen sortzaileak dira. 5 urteren ostean, Erregionaleko 2. mailatik lehenengo mailara igo ostean, taldea galduko dute, neska gehiagok izena eman ezean. Ilusioa dute, eta parekidetasun-eza aho zabalik salatzeari

ekin diote. Konponbide bila, Udalagaz eta klubagaz batzartuko dira.

**Jokalari bila zabiltzate.**

**Oiane Zabala:** Bai, orain 10 baino ez gaude. Liga hiru aste barru hasiko da, eta, gutxienez, taldeak aurrera egiteko, bost jokalariek behar ditugu. Baina ez dago neskarik. Kartelak jarri ditugu, lehen jokatzeko zutenek ere ez dute jokatu gura; lanagatik, amak direlako... Zaila da.

**Nork eman dezake izena jokatzeko?**

**OZ:** 16 urtetik gorako neska orok.

**Zelango giroa dago zuen aldagelan?**

**EG:** Oso ona: datorrena geratu egiten da. **OZ:** Badakigu futbolak ez gaitue-

la pobre izatetik aterako. Gure hobbia da, gustatzen zaigun kirola. Aldagela bat eginda dago.

**EG:** Ez da futbola bakarrik. Gero taber-

“ Hamasei urtetik gorako neska orok eman dezake izena jokatzeko ”

nara gatoz; batera gabiltza; afariak, urtebetetzeak egiten ditugu; familia bat gara. Hori gustatzen zait: lagunak nabil, ondo pasatzeko.

**Lehiakideak oso gertukoak dira.**

**EG:** Eta ezagunak. Afaritan goazene-

an, eurekatzeko topatu eta egoten gara, edo partida amaituta.

**OZ:** Lehia ere badaukagu, Ugeraga-koakaz eta Bizkerrekoakaz. Uribe Kostako derbiak dira. Guztioi futbola gustatzen zaigu, eta harremana erraza da.

**Sari bakarra hori da, ezta?**

**OZ:** Gurean ez dago dirurik. Geuk ordaindu behar dugu. Orain 40 euroko bazkidetza eskatu digute.

**EG:** Halere, gugatik dirua hartzen dute: klubei subentzioa ematen diete, emakumezko talderen bat izategatik.

**OZ:** Athleticek diru-partida bat ematen die klub denei, materiala erosteko. Horretaz aparte, Berangoko Udalak diru-laguntza ematen du.

**EZ:** Gugatik ematen diete diru bat, eta, gainera, geuk ordaindu behar dugu.

**OZ:** Eta ez dute ezer egiten gugatik. Literalki esan ziguten aurreko batzar batean: «bizimodua atera beharko duzue»; hau da, «ez dugu zuengatik ezer egingo», moduko bat.

**EZ:** Ez dago berdintasunik hemen. Topikoa dirudi, baina gizonen taldeak eta emakumezkoak ez gaude berdin. Haiek ere ordaindu behar dituzte 35 euro bazkide izateko, baina gero haiei dirua ematen diete, partidak irabazteagatik. Eta gugatik ematen dieten dirua, besteentzat hartzen dute? Eta guretzat ezer ere ez?

**Taldeakide gehiago lortu ezean, taldea bertan behera utziko duzue...**

**OZ:** Bai. Gu oraindik bagabiltza neskak bilatzen. Mugitu gara. Saiatzen gabiltza ea lehengo neskek bueltatzen diren... Jada kontua da nesken futbola aurrera ateratzea. Uste dut guztion artean zerbait egin beharra dagoela. Berdintasuna lortzeko, ez soilik Berangoko taldean.

**EZ:** Emakumeen futbol talde denengatik da. Guri gertatu zaiguna bihar beste talde bati gerta dakioke. Orain guri dagokigu gogor egitea.

**OZ:** Topiko matxistak oraindik entzuten dira, «futbol femeninoa ez da futbola, ezta femenino ere» bezalakoak. Nahikoa da! Kokoteraino nago emakumeen futbola gutxiesteaz. ◀

**I**  
**Iñaki**  
**Bitxitegia**  
MONTBLANC, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA  
Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45  
Tellebxe 1 Tf. 94 460 27 41  
**Algorta**

**aldai**  
TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAILERRAK  
Basagoiti etorbidea 32  
Tf. 94 460 90 31  
48990 ALGORTA

**GAVRKO**  
GIZONENTZAKO  
MODA  
Zabala 9  
ALGORTA  
Tf. 94 460 70 84

**GARAIZAR**  
BARRIKUNTZAK  
ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK  
Tel. 94 430 52 43 / 607 952 977-6  
regaraizar@gmail.com - www.garaizar.biz  
Illeta kalea 1 ALGORTA

**ITXASGANE**  
prentsa • aldizkariak  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Aritzu z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO



## Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostas ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



SARIA

**Txo Mimak txikia** Irailak 23, 18:30  
Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizunerako 5 sarrera bikoitz

Irailaren 21a baino lehen, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: [hiruka@hiruka.eus](mailto:hiruka@hiruka.eus) edo 944 911 337

## Horoskopoa



**Ura**

(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Antzinako erromatarrek elkarri ohartarazten zioten: «kontuz ibili opariak dakartzaten greziarrekaz». Zuk, ordea, ez duzu beldurrik izan behar.



**Adarra**

(Otsailak 19-Martxoak 20)

Salba ezazu zeure burua, eta utziozu orduak eta orduak telebistaren aurrean emateari. Laranja, limoia eta luxua baino hobea da bizitzaz gozatzea.



**Hostoa**

(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Auzokidearen arropa bat topatuko duzu ezustean. Ondo gorde eta ahalik eta lasterren bueltatu, berea da-eta.



**Garia**

(Ekainak 19-Uztailak 18)

Orain arte ez bezala, kafeari bigarren azukre-poltza botatzeko beharra izango duzu. Kontrolatu zure antsietatea eta glukosa.



**Iratzea**

(Abuztuak 18-Irailak 16)

Lagunek ezustekoa eman gura dizute, baina unea heldu aurretik prestatu dutenaren berri izango duzu. Ez kendu ilusioa, eta ezjakinarena egin.



**Hazia**

(Urriak 17-Azaroak 15)

Pertsona ezagun batek harrituko zaitu aste honetan. Zure alde agertuko da, nahiz eta beti etsaitzat-edo izan duzun. Eskerrak eman.



**Negua**

(Azaroak 16-Abenduak 20)

Gustuak askotarikoak direnez, ez kexatu gela txukuntzeko deitu zenuen lagun hark egindakoak aho bete hortz uzten bazaitu, itsusiaren itsusiz.



**Otsoa**

(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Osasunerako ona izango duzu fruta eta barazki gehiago jatea. Halere, ez ahalegindu laranja-zukuari berakatzat botatzen.



**Aitzurra**

(Martxoak 21-Apirilak 19)

Etxea garbitzean, txikitako kontuak topatuko dituzu. Aprobetxatu ahaztuta zeneuzkan oroitzapen gozo haiek bueltan ekartzeko.



**Eguzkia**

(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Lasai egon. Aste-akabu honetan ere jaiak izango dira eskualdean. Hortaz, ez duzu oso urrun joan behar izango parrandan ibiltzeko.



**Lastoa**

(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Kontuz ibili hirugarrenean! PINa berriro ere txarto sakatzuz gero, PUKaren bila hasi beharko duzu. Eta auskalo non sartu zenuen dioxosozko kodea!



**Meta**

(Irailak 17-Urriak 16)

Orain arte ez baduzu urte berrirako asmo bat ere bete, hobe duzu ahaztea. Zertarako apuntatuko dituzu datorren urtekoen zerrendan?

## ZU BAINO EZ ZARA FALTA



**Euskara ikasi, hobetu  
edo erabili nahi baduzu hementxe duzu  
behar duzun informazio guztia.**

[www.getxo.eus/euskara](http://www.getxo.eus/euskara)







# Uribe Kosta

## Historiaurrearen erakusleihoa

**ALBOKO IRUDIETAN:**  
Azkorri aurkitutako harri bolkanikoz egindako aizkora (115.000 urte). Aranbaltzako indusketa arkeologikoko taldea, 2015ean. Behean, Libanok aurkitutako piezen birproduktzioa. ©IÑAKI LIBANO

**Barrikako flysch silexak** eragin handia izan zuen historiaurreko gizakiarentzat. Iñaki Libano barrikoztarrak 35 urte daroatza garai hartako puzzlea osatzen, eta 65 aztarnategi aurkitu ditu Uribe Kostan; Behe Paleolitotik erromatarren garaira arteko piezak batzen dituztenak.



IKER RINCON MORENO

**H**istoriaurreko ondarea oso aberatsa da Uribe Kostan. Ugariak dira Abrako kostaldetik Butroe ibaiaren bokalera bitartean aurkitutako aztarnategiak, aire zabalekoak denak. Barrikako Kurtzia inguruko amildegietako flyschean kalitatezko silexa dago, eta horrek izugarritzko harri-industria sortu zuen orain dela milaka eta milaka urte. Era berean, eskualdearen kokapen estrategikoak eragin zuen gizakiaren aurreko espezieak hemendik igarotzea; ondoren, iberiar penintsula osora hedatzeko.

Antonio Agirrek 1955ean egindako aurkikuntza arkeologikoen berri izanda, Joxe Migel Barandiaran Bizkaiko kostaldera abiatu zen 1959an, Getxotik Gortzerainoko tartera, ingurua xehe-xehe aztertzeke. Astebete inguru eman zuen gurean zundaketa arkeologikoak egiten, eta horiek erakutsi zioten gizakiak luzaroan okupatu zuela eremu hori, Mousteriarretik (orain dela 50.000 urte baino gehiago) Brontze Arora arte (duela 4.000 urte inguru). Hala ere, lan egiteko eremuaren tamainak eta denbora faltak indusketa zehatzagoa egitea eragotzi zioten. Gorabeheren artean, flyscheko silexaren azalaramendu naturala eta Uribe Kostako material arkeologikoaren kontzentrazio-eremu nagusiak aztertu zituen Barandiaranek. Gero, beste ikertzaile batzuek jarraitu zuten azterketa horiekaz, hainbat prospekziogile independente batzuek batera; Iñaki Libano, barbarako. Liba-

noren aurkikuntzak azpimarratu beharrekoak dira, aztarnategi ugari aurkitu baititu orain arte detektatu bako hainbat eremutan, esaterako: Aranbaltza, Arriabala, Arriaga, Gane eta Errementariena, Barrikan; Mendiondo, Urdulizen; Landaluze, Arrietara eta Moreaga, Sopelan; Urtxubi, Larrondo eta Artzubiaga, Berangon; Azkorri eta Kurtze, Getxon; eta Kurkudi, Aretxabaleta eta Mendibarrena, Leioan.

### Uribe Kostan historiaurreko garai guztiak aurki daitezke: Behe Paleolitotik hasita, erromatarren garaira arte

Libano algortarra da sortzez; Barrikan bizi da gaur egun, eta Uribe Kostako bazter denak ezagutzen ditu. Arkeologia eta historiaurrea dira bere pasio handiak, eta eskualde osoa arakatzera eroan dute, historiaurreko piezak aurkitzeko eta milaka urteko puzzlea osatzeko. Gaztea zenean ekin zion bide horri, 17 urte zituenean, hain zuzen ere. “Jose Saratxagagaz hasi nintzen. Berak inguruko hainbat dolmen eta trikuharri aurkitu zituen, eta Barandiaranek aurkitutako aztarnategiak berraurkitzeari ekin genion elkarregez. Hala ere, ia guztiak suntsituta zeu-

dela ikusi genuen. Ondoren, nire kontu piezak bilatzeari ekin nion, bideetan, obretan eta ortuetan, barbarako”, azaltzen du barrikoztarrak. 1979an ekin zion bide horri: inguruak arakatu, materialak aurkitu eta horiek klasifikatu. “Aurkitutako pieza guztiak klasifikatuta ditut; horrela, klabea begiratu, pieza zehatz baten datu guztiak jakin ditzaket: nongoa den, zein garaikoa den eta beste hainbat kontu. Hori da garrantzitsuen”, argitzen du Libanok. Izan ere, inguru zehatz batean aurkitutako materiala aztertuz gero, zein kulturatakoa den zehatz daiteke: “mousturiarra, auriñariarra, gravettiarra edo solutrearra, barbarako”. Mousturiarra Erdi Paleolitoko neanderthalen kultura da, eta *Homo Sapiens*-aren etorri-eragaz amaitu zen gure lurraldean, orain dela 40.000 urte. Horrek eman zion hasiera Goi Paleolitoari, eta *Homo Sapiens*-aren garai hartan, duela 40.000 eta 8.000 urte artekoan, hainbat kultura garatu ziren: auriñariarra, gravettiarra, solutrearra, magdalearra eta aziliarra: “horiek guztiek presentzia izan dute gurean”, azaltzen du Barrikako ikertzaileak. Berak 35 urte daroatza eskualdeko bazterrak aztertzen. Denbora horretan, 2.000 irteera inguru egin dituela aitortzen du; horietatik, 650 alditan historiaurreko piezaren bat edo beste aurkitu du. Libanok 4.000 pieza inguru eta 65 aztarnategi aurkitu ditu eskualdeko 45 ingurututan. Batutako pieza gehienak Bilboko Arkeologi Museoari eman dizkio, han erakusteko.

### Paleolitiko osoa, Uribe Kostan

Libanok azaltzen duenez, eskualdean historiaurreko une guztiak iker daitezke: “Behe Paleolitoa, Erdi Paleolitoa, Goi Paleolitoa, Neolitoa, Kalkolitoa, Burdin Aroa eta erromatarren garaia”. Era berean, aurkitutako piezak “zoragarriak” direla dio. Zaharrenak





Moreagan berreskuratutako kuartzita-harri landuak dira; Behe Paleolitokoak, orain dela 250.000 urtekoak. Barrikoztarrak argitu duenez, Sopelan aurkitutako pieza horiek “bakarrak” dira, “Bizkai osoan, ez da mota horretako besterik aurkitu”. Harri horiek ibaietatik hartzen zituzten, eta momentuan lantzen zituzten, behar zituztenean. Libanoren esanetan, seguruenik *Homo antecessor* edo *Homo heidelbergensis* delakoek erabiltzen zituzten erreminta horiek: “oraindik ez ziren neanderthalak”. Atapuercan aurki daitezkeen material bertsuak dira, hezurretako muina lortzeko erabiltzen zituztenak. Azaleko prospekzioari esker, lehen biztanleenak diruditen beste material batzuk ere aurkitu dira Errementariaren (Barrika), Azkorrin (Getxo), Mendibarrenan (Leioa) eta Aretxabaleta eta Ondizen (Leioa). Kurkudin (Leioa), oster, lutitagaz eta bulkanitagaz egindako nukleoak eta harri-ezpalak aurkitu dira, Erdi Paleolitokoak. Ondorengo garai batzuetan, Uribe Kostako giza-okupazioa silexaren ustiapenari lotu-lotuta egon zela pentsa daiteke, baina, adituek diotenez, ez dirudi Erdi Pleistozenoan gauza bera gertatu zenik. Hortaz, eskualdeko elementu erakargarriak beste batzuk izan zitezkeen. Aurkitutako tresneriaren aniztasun eta kantitate txikiak agerian uzten dutenez, gizakien okupazioak intentsitate txikikoak ziren, eta ziurrenik, biziraupen-jardueri lotuta zeuden, esaterako: ehiza, sarraskiak jatea eta fruituak batzea.

### Silexaren garrantzia, eta neanderthalak

*Homo Neanderthalensis* espeziekoak izan ziren Europan orain dela 250.000-40.000 urte bizi izan ziren gizakiak; Uribe Kostan 200.000 urte inguru bizi izan ziren. Orduan, ingurumen-aldaketa ugari gertatu ziren. Uribe Kostan, Mousturiarreko establezimendu ugari

daude; horietatik, Kurtziakoa (Barrika) azpimaratu beharra dago. Aztarnategi horretan material bereizgarriak aurkitu ziren, barbarako Mousturiarreko puntak, karrakailuak, dentikulatuak eta Levallois sistemagaz egindako nukleoak.

Kurtziako silex-azaleramenduak neanderthalak erakarri zituen, eta tresnak egiteko tailerrak (Kurtzian eta Goierrin, barbarako) eta behin-behineko establimentuak (Mendietan edo Berañon, esaterako) ezarri zituzten. Libanoren iritziz, Uribe Kosta erremintak “seriean ekoizteko” lekua izan zen Neolitoan. Izan ere, Kurtziako silexagaz egindako laminak Kantauri isurialde osoan aurkitu dira. Oso berezia da Kurtziako silexa; erraz jakin daiteke silex bat nongoa den; “munduan ez dago Barrikakoa bezalakorik. Oso kalitate handikoa da, oso hauskorra,

### Iñaki Libanok 4.000 pieza inguru aurkitu ditu eskualdean; gehienak Bilboko Arkeologi Museoa ikus daitezke, erakusketa batean

barne ezpurutasunik gabekoa, eta oso erraz lantzen da”, Libanoren arabera. Silexagaz fabrikatutako tresnak gordetzeko joera zuten neanderthalek. Horren adierazgarri jartzen du Berangoko Agirremendi aztarnategiko kasua. Bertan aurkitutako materiala ikertu ostean, jakin zuten % 15 Chalossekkoa (Frantzia), % 6 Urbasakoa (Nafarroa) eta gainerako guztia Kurtziakoa dela. Horrez gainera, Chalosseko nukleo bat eta horregaz bat egiten duen lamina bat ere aurkitu zituzten; “horrelakoak aurkitzea oso zaila da, eta horrek erakusten digu neanderthalek materiala

gainean eroaten zutela, leku guztietan ez zelako silexa aurkitzen”. Hala, erremintak gordetzeaz gainera, silexa leku batetik bestera eroaten zuten, eta behar izanez gero, momentuan lantzen zuten.

### *Homo Sapiens*-aren etorrera

Gure espeziea orain dela 200.000 urte koka daiteke Sahararen hegoaldeko lurretan. Ondoren, mundu osora hedatu zen, eta Europara duela 45.000 urte sartu zela diote ikerlariek. Talde horiek Europara sartu zirenean, gainbehera betean zeuden neanderthalen populazioagaz egin zuten topo. Neanderthalak handik gutxira desagertu ziren, eta azken establezimenduak Iberiar penintsulan ezarri zituzten.

Kantauri isurialdeko lehenengo *Homo sapiens*-en habitat gehienak kobazuloetan aurkitu dituzte, eta oraingoz, salbuespenak dira aire zabalean aurkitutakoak. Hala ere, Uribe Kostan, gizaki modernoaren aztarnak aire zabaleko hainbat aztarnategitan aurkitu dira. Adituen arabera, Barrikako kostaldearen ondoan finkatu ziren Iberiar penintsulara sartu ziren lehenengo gizaki modernoak; silexa zuzenean esku-ragarri izateko, seguruenik. Aranbaltzako aztarnategian aurkitutako material batzuk, eta Ollagortako gutxi batzuk, châtelperroniarreko bereizgarriak dira, “neanderthalen eta *Homo Sapiens*-en arteko talka gertatu zen garai hartan ; 2.000 urte besterik ez zuen iraun”, Libanok argitu duenez. Garai hartan, oso teknika bereziak erabiltzen zituzten, “oso bereizgarriak”. Iberiar penintsulan oso urriak dira mota horretako piezak, baita Frantzia ere. Aranbaltzan, berriz, Libanok eta arkeologiako ikerketa-taldeak egindako lehenengo zundaketetan 20 pieza aurkitu zituzten.

Barrikako Aranbaltza aztarnategia eskualdeko garrantzitsuenetarikoa izan daitekeela uste du Libanok. 1996an aurkitu zuen, Barandiaranek aurkitutako Ollagortakoarenetik oso hurbil. Ondoren, 2003an, Libanok, Joseba Rios CENIEHko arkeologoak eta Diego Garate Bizkaiko Arkeologi Museoko arkeologoak bertan indusketa-lanak egitea erabaki zuten. Hiru urte darozkate bertan lanean, eta orain Karkolito garaian daudela iragarri du Libanok; “gezi-punta zoragarri bat aurkitu dugu aurten”. Beherago gravettiarra eta châtelperroniarra aurkitu dituzte, eta horren azpian neanderthalen garaia. “Ez dakigu beherago zer dagoen, ez garelako ailegatu; baina aztarnategiak potentzial handia du”, dio ikertzaileak.

Libanok aurkitutako aztarna modernoak Al-gortako Kortiñe aldean izan ziren. Bertan txaletak egiten hasi zirenean, obretan aztarnategi bat aurkitu zuen. Aldundiagaz hori aztertu zuen, eta zeramika *terra sigillata* aurkitu zuen, II. mendekoa. Bertoko zeramika ere aurkitu zuen, karistiarrena. Era berean, burdinazko lantza-punta bat eta fundizio-zepa ugari topatu zituen: “fundizio-labe bat zelakoan nago, Galean kokatuta zegoelako, bertako haizeaz baliatze-ko”. Karistiarrek erromatarrekaz harremanak izan zituztela uste du ikertzaileak, Meñakoz inguruan eta Sopelan moneta erromatarrek aurkitu zituztelako, besteak beste. Izan ere, Meñakoz erromatar portu bat zela dio Libanok; “mineral bila etortzen ziren hona: komertzioa zegoen”.

Uribe Kostan aurkitutako historiaurreko aztarna denak direla eta, urte gutxi barru eskualdea Europa mailan garai horretako aztarnategi nagusitzat kokatuko dutela uste du Libanok: “zientifikoki irtetzen diren planteamenduak ikaragarriak izango dira!”. ◀



Sukaldean

## Txingarretan prestatutako olagarroa, patata moreakaz



### OSAGAIK:

Olagarroa, patata morea, pikillo piperraren aliolia, gatz lodia eta piperrautsa.

### UNAI TABERNA

Algortako Etorbidea 53, Algorta (Getxo)  
 Tel.: 944 661 661

U da amaitze dago. Itxi dira hondartzako txosnako mokaduak edo mendi-buelta laguntzeko tortilla-bokatak. Irailean bete-be-tean murgilduta gaude, eta errutinara bueltatzeko sasoia da. Hala ere, ez goibeldu, herrian ere ondo baino hobeto bazkaltzeko zein afaltzeko aukerak badaude-eta.

Horren adibide garbia dugu Algortako Unai Taberna, txingarretan kozinatzen espezialistak. Txipiroiak, txuletak, olagarroa... Denetarik prestatzen dute taberna txiki horretan, eta oraingoan itsasotik atera berri den olagarro fresko-freskoa mahai gainean ipini digute, patata more bereziakaz lagunduta. Plater berezia, erabat; zelan prestatzen den jakin

gura duzu? Mokadua prestatzeko, olagarroa puntu-puntu egosi beharko dugu, ostan txingarretan prestatzeko, patata moreakaz batera. Bitartean, etxeko maionesagaz pikillo-piperraren ali-olia egingo dugu. Horretarako, berakatza eta konfitatutako pikillo piperra beharko ditugu. Behin saltsa eginda eta patatak zein olagarroa zatituta ditugula, plateran jarriko dugu dena.

Azkenik, gatz lodia eta piperrautsa botako dizkiogu gainera. C'est fini! Prest dugu edozein lagun liluratzeko moduko plater gozo-gozoa, are gehiago Viña Salceda kiantzagaz lagunduta aurkeztuz gero. Platera kartan aurki daiteke, aste-akabuetan bereziki, 16 euroren truke. ◀

## faceguk



Zer deritzozu San Nikolaseko dorreari?

**MARIA JESUS POLO FREIRE**  
 ALGORTA



Lotsagarria da; herritarren diruagaz jolasten dabilta. Alkatearen etxearen ate aurrean jar dezatela. Argiakak eltxoak erakartzeaz gainera, hamaika arazo sortuko ditu.

**AITOR APRAIZ IMAZ**  
 BAKIO



Lehenengo begiradan oso handia iruditzen zait. Entzun dut plaza argiztatzeko erabiltzeaz gain, pantaila jarriko dutela bertan. Itxaron beharko dugu ia merezi duen.

**LEXURI AYO ANSOLEAGA**  
 LEIOA



Urrunetik ikusi nuen eta arraro egin zitzaidan. Tokiz kanpo dagoe-l iruditzen zait. Gainera, ikusten da egitura finkoa dela. Beraz, ez dago atzera egiterik.

**ENCARNI CANO MARTINEZ**  
 ALGORTA



Kendu zuten kioskoa da falta zai-guna... Besteak beste, plaza argiztatzeko baldin bada, agian, praktikoa suerta daiteke. Hala ere, niri ez zait batere gustatzen.

**RICARDO ELORZA BOBADILLA**  
 ALGORTA



Argiztapenerako edo garajeko kea ateratzeko balio arren, ez dut sinisten aukera bakarria izan daite-keenik inguruko estetika apurtzen duen tramankulu bat jartzea.

## Dastaketa fitxa

**ARDOA:**  
 Viña Salceda kiantza (2011), Errioxa.

**UPELATEGIA:**  
 Viña Salceda, S.L.

**MAHATSAK:** % 95 tempranillo, % 5 mazuela eta graziano.

**DASTAKETA:** Bizia eta oso frutaduna. Nabariak dira fruta beltz onduak (basarana eta arana) eta piperrauts beltza. Hasieran sakona, ahoan leuna eta bolumenduna; orekatua. Iraunkortasun onekoa. Zapore-ondokoa: fruta beltzena (andere-mahatsa, banilla eta espeziak).



Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua